



Aberri Eguna 1962-2012

Pernando Barrena

«Presoek erabaki gehiago hartu beharko dituzte beren askatasuna bideratzeko»

Marta Cardenas

Madriren euskaldundutako margolaria

Ander Lipus

«Periferian ibiltzeak asko erretzen du, baina bestela ez dago salbatzerik»

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua



Azaleko argazkia:

GUDARI ALDIZKARITIK
HARTUA

Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



• **NON ZER** •

2012ko apirilaren 8a, 2.218. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Imanol Murua Uria:** «Botoa aldatu izan duen bitxo arraro horietakoa naiz». ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Aberri Eguna.** Etxetik plazara, aldarria eta borroka. URKO APAOLAZA / 5

Pertsonaia

- **Marta Cardenas:** «Europako arteari begira bizi gara, baina adierazpide mordoa dabil munduan». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Gaiak

- **ARGIA mugikorrean.** Multimedia kanal osoa sakelakoan ikusgai. LANDER ARBELAITZ / 15
- **Ahalmenen garapen goiztiarra.** Lehen urteetan pizgarri. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 16

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Ttakun eta aparte. JOSÉ LUIS PADRÓN / 18
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENTA / 19
- **Argiarena** ez dago argi. JOXERRA AIZPURUA / 20
- **Txandan** Seta eta tema. JOXERRA GARZIA / 20
- **Eztabaida** instituzionala argitzen ari. JAKES BORTAIRU / 21
- **Hiruko txikian** Batelak. JOXEMARI OSTOLAZA / 21
- **Bertso berriak** Gorriak eta moreak. JEXUX MARI IRAZU MUÑOZA / 22

Erdiko kaiera

- **Ander Lipus:** «Kaosean sorkuntzak beste dimentsio bat hartzen du». OIER GUILLAN / 23
- **Moonpalace Records.** Pasioz eta mimoz. IRATXE ESNAOLA / 26
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 28 • **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30 • **Abarrak** MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 31
- **Ihesi Larrabetzu (Bizkaia).** Askatasuna erdigune. GOTZON BARANDIARAN ARTEAGA / 32
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 36
- **Zientzia** J. AIZPURUA / 38 • **Landareak** J. ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **Pernando Barrena:** «Aldebakartasunean datza ezker abertzalearen sendotasuna». MIKEL ASURMENDI / 41
- **Udaltop IV. topaketak.** Borroka feministaren ikasgaiak. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 47
- **Net Hurbil** Peter Goodwinek bidea ireki zion heriotza duinari. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- **Tribuaren mezulariak.** MIKEL IRIZAR / 50

OHARRA

Datorren astean ez da ARGIA kaleratuko. Apirilaren 22an itzuliko gara.



“Botoa aldatu izan duen bitxo arraro horietakoa naiz”

Imanol Murua Uria

Elkarrizketatzaile elkarrizketatua,
ez da sarri gertatzen.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Are gutxiago elkarrizketatzaile elkarrizketatua momentuko analista politikoa izatea.

Renoko Unibertsitateko ikasle bat elkarrizketatzen ari zara, denbora librean analista politikoren plantak egiten dituen.

Egin plantak bada: eman egungo egoera definitzen duen esaldia.

Azkenean egia zen tunelaren bukaera argia zegoela.

Orain euskaldunok abilak izango gara politikagintzan...

Eskoziarrak bezain abilak ez, oraingoz behintzat. Azken hamarkada hauetan kalamidade samarrak izan gairela esango nuke.

Oraintxe esan duzu...

Hanka-sartzez hanka-sartze eskarmentua pilatzen ibili gara; eta pauso bat edo beste atzera ematen, baina inpultsua hartzeko.

Euskal Herriko momentu politikorik kitzikagarriena, eta zu AEBetan.

Eta oraindik ez nago seguru zerbaiten bila etorri nintzen, edo zerbaiten ihesi alde egin ote nuen.

Ez dakitzenbatmila exiliatu horiekin batera bueltatu zaitezke, beti ere.

Alde egin nuenean hasi ziren, hain zuzen, gauzak apur bat zuzentzen. Ez dezagun dena izorratu azkarregi bueltatuta.

Akats bat aipatuko dizut, dena den: analista politikoa izateko, gutxiegi nabaritzen da zein den zure alderdi politikoa.

Hauteskundetik hauteskundera botoa aldatu izan duen bitxo arraro horietakoa naiz: ETA-ren atentatu batek nire boto asmoa alda zezakeen, baita Espainiako Auzitegi Gorenaren erabaki batek ere. Egoera berrian, susmoa dut mundu guztiak bezala egingo dudala: beti ekipo berari.

Orduan izango zara benetako analista politiko, hots, alderdi politiko baten bozeramaile.

Honez gero ez dut lortuko. Dena den, beti alderdi jakin beraren irakurketa bera egiten duten analistak ere baliagarriak zaizkit: alderdien txosten luzeak irakurri beharrean, analisi/laburpenak irakurtzea errazagoa da. Baina, beti ere, askoz nahiago analisi propioa egiteko gaitasuna dutenak.

Egiguren, Urkullu, Otegi elkarrizketatu dituenak, esateko beste izango du isiltzeko, ezta?

Ez gehiegi. *Loiolako Hegiak* libururako elkarrizketak egin nituenean, arau bat proposatu nien: ez kontatu argitaratu ezin dudan ezer. Ondo atera zitzaigun jokaldia.

Oso ondo, begira orain non gauden!

Begira eta begira ari naiz baina, egia esan, ez diot antzematen non arraio gauden. Ea bi urte barru kontatzen dizuedan. ■



Aberri Eguna

Etxetik plazara, aldarria eta borroka

Errepublikako urteetako aparraldiaren ondoren, urte luzez isilpean ospatu zen. Duela mende erdi, ordea, Itsasutik Euskal Herri osora salto egin zuen. Ospakizuna eta borroka, aldarrikapena eta eztabaida. Abertzaletasunaren beroaldiak eta izotzaldiak neurtzeko termometro politiko bilakatu da Aberri Eguna.

URKO APAOLAZA



1978ko Aberri Egunak inoizko babesik zabalena jaso zuen. Milaka lagun bildu zen, norbere mezuarekin, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta Larrun mendian. Irudian, Iruñeko manifestazioa Gazteluko Plazan, 35.000 lagun inguru elkartu ziren.

XIMUN HARAN ETA JULEN MADARIAGA Gerrikako haritzaren kimu aurrean ageri diren argazkia ezaguna da (hurrengo orrian). Itsasuko 1963ko Aberri Egunaren funtsa irudikatzen du: Enbatakoea bata, ETAkoea bestea, Euskal Herria nazioa dela publikoki aldarri-

katzen. Itsasuko ekitaldi hura mugarriztat dute askok, baina izan zuen aurrekari bat 1962an, duela mende erdi hain justu.

Enbatako kideek Aberri Egun ez-ofiziala antolatu zuten 1962an, hura ere Itsasun. Hurrengo urteko ekitaldi handia antolatzeke



EUSKADI ETA ASKATASUNA

Goian, Ximun Haran eta Julen Madariaga Gernikako haritzaren kimu aurrean. Itsasuko 1963ko Aberri Eguna mugarriztat du askok. Hartara iristeko, baina, Enbatak 1962an egindako Aberri Egun ez-ofiziala ezinbestekoa izan zen. Eskuinean *Enbata* aldizkari 1962ko maiatzeko azala.

abiapuntua izan zen: “Joan den Bazko astelehenean biltzar bat egin da. Batasun eta anaitasun osoan iragan da. Egun goxoa, egun baliosa, mentura aberatsez bete! Agian laster ageriko dira ere egintzak eta obrak! Goazen aintzina!”, zioen *Enbata* aldizkariak.

Ximun Haranek, Jean Luis Davantek eta Jaques Abeberrik hitz egin zuten hastapeneko Aberri Egun hartan, iheslari politiko andana aurrean zutela, tartean Telesforo Monzon. Abeberrik Enbataren etorkizuneko norabideaz aukera ezberdinak mahairatu zituen: alderdi politikoa, erresistentzia klandestino, ala mugimendu abertzale zabala izan? Azkeneko horren alde egin zuten. Pentsa liteke hurrengo urteko Aberri Egun arrakastatsuekin baduela zerikusirik erabaki horrek.

Bestalde, Gernikaren bonbardaketaren 25. urteurrena zen hura, eta ondo gogoan izan zuten: “Gerra izigarri hori ez du ezagutu orainko gazteriak. On du jakitea burasoek Herriaren alde zer egin zuten eta zer sofritu... Baina, denez gainetik, geroaz du axola eta kezka bat zaio gogo-biotzean sortzean: Euskadi bat eta libro ikusiko duenez. Gainerateko asmo guziek zer inporta dute?”, dio *Enbatak*.

Hogeita hamar urte igaro ziren Errepublikara garaiko lehen Aberri Egunez; hogeita hamar urte eta gerra bat. Denbora luze horretan aberri egunak etxe barnean ospatu ohi ziren. Pazko igandean aitzak seme-alabei JEL hizkiz hornitutako ikurrina erakusten zien ezkutuan, Orixeren euskarazko meza-libururen batetik aterata; eta atzerriko euskal

ETAren ustez Aberri Eguna ez zen “festa folklorikoa, horretarako erromeriak daude”



LAZKAOKO BENEDITARRREN ARTXIBOA

etxeetan herrimina asetzen zuten ezpata-dantzari inguratuta. Ez gehiago.

Baina 1950eko hamarkada amaieran gero eta mintxoagoak ziren EAJren pasibotasunaren kontrako kritikak. Atzera begira eta bertan goxo egotea egozten zieten jeltzale zaharrei: “Aita maitea, jada adinez nagusi naiz...”, idatzi zuen egile anonimo batek EGiren *Aberri* aldizkarian: “Gaztediak bere iraultza egiteko eskubidea du... zuk pixka bat deskantsatu zenezake... utziko didazu lagun-tzen?”. Haustura horretatik ETA sortu zen eta abertzaletasunak haize freskoa hartu zuen. Belau-naldi berriak, Labegerieren *Gugira Enzkadiko gaztedi berria* doinupean, gudari nostalgikoei bul-tzaka ari ziren.

Horixe irudikatu zuen, hein batean, 1963ko Itsasuko Aberri Egunak, gazteriaren zati baten enbidoa: “Gure errian arrunt zabaldu da jokabide ero bat: ‘oraindik ez’ leloak ondo erakusten du erokeri ori zer den”, azaldu zuen ETAk egun horretarako ateratako idazkunean. Hortik aurrerako aberri egunek beste dimentsio batera egin zuten jausi, aldarrikapen egun masibo bilakatu ziren.

Festarako ala borrokarako?

Frankismoko aberri egunek borrokarako bidea ireki zuten. Baina ikuspegi oso ezberdinak zeuden abertzaletasunaren baitan. EAJren inguruan biltzen ziren gehienek “erakustaldi baketsuak” nahi zituzten; aldiz, ETAren ustez “Aberri Eguna ez da festa folklorikoa, horretarako erromeriak daude”.

Aberri Egun esanguratsuenak azken mende erdian

1963: "Itsasuko Ageria". Gerra osteko lehen Aberri Egun publikoa.

1964: Gernikan milaka lagun elkartu ziren EAJ eta ETAk deituta. Haritzaren aurrean makurtuta dagoen gaztearen irudiak munduari bira eman zion (ARGIA honetako azala).

1966: ETAk Irun-Hendaiara deitu zuen bere kabuz, Aberri Egun iraultzaileagoa bultzatzeko asmoz.

1969: Aurreko urteko errepresioaren ondorioz, EAJk ez zuen deialdi publikorik egin. Boikot urtea.

1974: Leizaola lehendakaria Gernikan izan zen.

1978: Lehen Aberri Egun legala ospatu zuten alderdi guztiek elkarrekin.

1980: Herri Batasunak eta beste zenbait alderdik Donostian deituri-ko Aberri Eguna galarazi zuen Espainiako Gobernuak.

1982: Lehen Aberri Egun ofiziala. Alderdi estatalistek jada ez dute ospakizunerako deialdirik egingo.

1987: Zatiketa EAJn. Eusko Alkartasunak Anoetako Belodromoan egin zuen ekitaldi nagusia.

1989: Herri Batasunak 60.000 lagun elkartu zituen Iruñean autodeterminazioaren alde. Aljerreko negoziazioek porrot egin zuten.

1995: ELA eta LAB sindikatuek komunikatu bateratua plazaratu

zuten. Hiru urte geroago beste agiri bat kaleratuko dute. Sindikatu aber-
tzaleen arteko aliantzaren hasiera.

1999: Lizarra-Garaziko akordioa. Udalbiltza udal hautetsien biltzarrak deituta Aberri Egun bateratua egin zuten udalerrri guztietan indar aber-
tzaleek.

2002: AB, Aralar, Zutik, EA eta Batzarrek agiria kaleratuko dute ETAr su-etena eskatuz. Aberri Eguna nork bere aldetik ospatu zuen.

2010: Independentistak sareak Irun-Hendai-
an 14.000 lagun elkartu zituen. EA, ezker abertzalea, LAB, Nazio Etabaidagunea eta beste hainbat eragileren babesia izan zuen. 2012an Iruñean egingo du Aberri Eguna eta Aralar, Alternatiba eta AB ere gehitu dira deialdira.



1964an EAJk Gernikara dei egin zuen Aberri Egunean. Gerra bukatuz geroztik lehen aldia zen ekitaldi publikoa Hego Euskal Herrian egiten zena. EAJ nolabait derrigortuta sentitu zen urrats hori ematera, abertzaletasunean hegemonia mantenduko bazuen. ETAk ere deitu zuen Gernikara, baita beste hainbat erakundek ere. 40.000 lagun elkartu omen ziren bertan, aterkipean, "errespetua eta ordena mantenduz", *Euzko Deya*-ren korrespontsalaren arabera. Nolabait, EAJk lortu zuen helburua: manifestazio handia eta baketsua izan zen hura.

1965ean Bergaran egindakoa gisa berekoa izan zen, baina hortik aurrera aberri egunetako tentsioa *in crescendo* joan zen eta "bataila" metaforikoa borrokaldi literal bilakatu zen. 1968ko Donostiako Aberri Egunak goia jo zuen: "Donostia, lurrez, itsasoz eta airez setiatua" irakur dezakegu atzerriko euskal egunkarietako goiburuetan. Francoren Gobernuak deliberaturik zegoen euskal matxinatuekin amaitzera eta horretarako "gerra beroari" ekin zion.

ETArekin enfrentamenduak eta tiroketak ugaritu ziren urte horretan; Txabi Etxebarrieta hil zuten urtea, Meliton Manzanar hil zuten urtea. Donostian, apirilaren 14an milaka poliziak —haietatik 500 zaldi gainean— bide

eta zubiak moztu zituzten, tabernak ixtera derrigortu eta 300 atxiloteta inguru izan ziren. Herritarrek lehen aldiz aurre egin zieten segurtasun indarrei.

Inflexio urtea izan zen hura. EAJren aburuz egoera horretan ezinezkoa zen ezer antolatzea eta 1969ko Aberri Egunean boikota egitera deitu zituen bere jarraitzaileak. Hurrengo urteetako estrategia ere antzekoa izan zen: "Erregimenari jokoa ez egitea", jeltxoen hitzetan. EAJtik ezkerreko zeuden erakundeek bestela pentsatzen zuten eta etengabe leporatuko diete jeltxoei desmobilizatzeko kontsignak jaurtitzea: "Aurten poliziak ez du interbenitu beharrik izan, ustekabeko lagun batek lana erraztu dio", zioen 1969ko maiatzeko *Zutik*-ek, ETAren organoak.

Dena den, EAJk anbiguotasunez jokatu zuen frankismoaren kontrako indarkeriaren aurrean. Jarrera bakezaleak defendatzen zituen, baina ez modu monolitikoan. ETAr etengabe ari ziren igarotzen EGiko militanteak, EAJren paralisaren aldean erakunde armatuak lilura itzela sortzen baitzuen. Hori saihestearren, EAJk nolabaiteko baimena eman zion EGiri ekintza armatuak egiteko. 1969ko Pazko igande hartan, Ultzamako bide bazter batean bi gaztek bizia galdu zuten lehergailu bat presta-

tzen ari zirela, Jokin Artajo eta Alberto Asurmendi ziren, EGIko kideak.

Trantsizioko urteen ostean berriz ere indartu zen aberri egunen izaerari buruzko eztabaida. 1979ko urriaren 28an Gernikako Estatutua onartu zen eta hortik gutxira Eusko Legebiltzarra eta Eusko Jaurlaritza eratu ziren, Carlos Garaikoetxea lehendakari zela. EAJk aspirazio gertukoena betarik ikusi zituen eta Aberri Eguna festa giroan ospatzen hasi zen: “Euzkadi urtean 365 egunetan egiten da”, dio orduko pegatina batek.

Baina ezkerreko alderdi eta erakunde abertzaleek egindako deialdiek izaera iraultzaileari eutsiko diote eta horren erakusgarri izan zen 1980an Iruñean gertaturikoa. HBk, LKIk, EMK-k, LABek, ETA(m)-k eta azken momentuan baita EEk ere deitu zuten Iruñera urte horretan. Gobernuak debekatu egin zuen ekitaldia eta indarra erabiliko zuela egin zuen mehatxu, Nafarroako sektore eskuindarrek xaxaturik. Baina antolatzaileek ez zuten Aberri Eguna bertan behera laga.

Iruñekoak Frankismoko urte latzenak gogorarazi zituen, polizia-okupazio paregabea eta eraso indiskriminatuak izan ziren: “Txanpaña eta janari estraordinarioen gaitetik, egurra izan zen ugariago Euskadin. Izan ere erreibindikapen larregi dago bete gabe Euskadik bere askatasun bidean etapa bat

bete duena onartzeko”, idatzi zuen *Punto y Hora*-ko kronikariak.

Pazko igandearen ondoren Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i-k beltzenak esan zituen EAJren kontra *Egin* egunkarira bidalitako gutun batean: “PNV-ak irriz, oihuz eta txokolatez ospatu du Aberri-Eguna, Nafarroako Aberri-Egunaz entzungor eginik. Urriaren 25 madarikatu hartan hasi zen zikloa hetsia da, beraz; eta PNV-a etsaiaren bandora pasa da”.

Ezkertiarrenek anti-inperialistatzat eta anti-kapitalistatzat zuten Aberri Eguna

Aberri Eguna, zeinen eguna?

1982an Aberri Eguna jai ofizial gisa ospatu zen lehen aldiz. Hala ere, orduko alderdi sozialistak ez zuten egun horretako ekitaldietan parte hartzen eta Euskadiko Partidu Komunistaren deialdiak gero eta lausoagoak ziren.

Diktadurako aberri egunak, festa abertzaleak ez ezik, langileriaren aldarrikapen egun ere izaten ziren. Baina 1980ko hamarkadan ezkerreko alderdi estatalistek Aberri Egunarekiko zuten ikuspegia aldatuz joan zen, festa “baztertzailatzat” baitzuten gero eta gehiago. Iaz, 2011n, Txarli Prieto PSE-EEko ordezkariak hauxe adierazi zuen Aberri Egunaren kariatara: “Aberri Eguna abertzaleen lasterketa zoroa da, ea zein den independentistago eta erradikalago”.

ETAk 1965ean definitu zuen bere burua sozialistatzat. Zalantzarik gabe erakunde hura izan zen Espainiako ezkertiar langile askorentzat abertzaletasunera hurbiltzeko kanala. Adibide garbiena 1970eko Burgosko prozesua izan liteke. Auzi horren ondorioz ETAk eta euskal erresistentziak babes ugari jaso zuen, eta Espainiako ezkerreko sektoreek hainbat aldarrikapen bere egin zituzten, amnistia edota autodeterminazioa kasu. Areago, ezkertiarrenek –abertzale nahiz espainiar– egun anti-inperialistatzat eta anti-kapitalistatzat zuten Aberri Eguna eta EAJri kritika gogorak egiten zizkioten “nazionalismo burgesaren” ordezkariak zirelako.

Lehen hauteskunde demokratikoek eta hortik aurrerakoek anti-frankismoaren filtroa kendu zioten Aberri Egunari eta orduan jabetu zen asko PSOE eta PCE ez zirela hain eus-kaltzale, ez eta herri txikien eskubide zale. Jatorrian ezker abertzaleetik asko zuen Euskadiko Ezkerrak, aldiz, Aberri Eguna bere kasa ospatzen jarraitu zuen, baina gero eta indar gutxiagoz, eta 1993an PSE-EEekin bat eginik, Pazko eguneko ospakizuna urriaren 25era aldatzea proposatu zuten. Hain justu, bi hamarkada geroago, data hori izendatu du jai-egun PSE-EEk, PPren babesarekin.

Batera bai, baina nahasita ez

Bi eskuko hatzak soberan daude mende erdian egin diren Aberri Egun bateratuak



Aberri Egunaren ipuina

1976an *Hitz* aldizkariak *Aberri Egunaren Ipuia* komikia kaleratu zuen. Marrazkiak Jon Zabaletak egin zituen “Akullu” ezizenarekin eta testua Beñat Bidegorrirena da. Bertan azaltzen da nola antzina bazen herri bat pozik bizi zena. Behin batean barbaroek eraso egin zuten eta herritarrak zapalduta bizi ziren hortik aurrera. Halabaina, gauetan akelarreak ospatzen hasi ziren isilpean, gero armak hartu zituzten, eta azken borrokaldiaren ondoren barbaroek amnistia eskatu behar izan zuten eta ihes egin. Geroztik ospatzen omen dira aberri egunak.



kontatzeko: 1964an Gernikan eta 1965ean Bergaran; 1967an Iruñean; 1978an eta 1979an hiriburuetan; eta 1999an eta 2000.ean udalerrietan, Udalbiltzak deituta.

Babes gehien jaso zuena 1978koa dateke. APk eta UCDk izan ezik gainerako alderdi guztiek deitu zuten. Egunkariaren arabera 200.000 lagunetik gora elkartu ziren Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta Larrun mendian. Dena den, batera bai, baina nahasita ez. Oso mezu ezberdinak entzun ziren manifestazioetan eta zenbait kasutan istiluak ere izan ziren jarraitzaileen artean.

Beste data esanguratsu bat 1999koa izan zen. Deialdi bateratua Udalbiltzak egin zuen eta udaletxeen aurrean bilkurak egin zituzten milaka lagunek. Arratsaldean, aldiz, norberak bere ekitaldia antolatu zuen. Hurrengo urtean ere udal hautetsien erakundeak hartu zuen iniziatiba, baina ordurako indar abertzaleen arteko harremanak erabat hautsita zeuden, Lizarra-Garaziko akordioak porrot egin eta ETA jarduera armatura itzuli zelako.

ETAren jarduna beti egon da aberri egunetako antolaketa eta diskurtsoen zurrunbiloaren erdian; esaterako, bakerako itxaropenak sortu direnean. 1989an Aljerreko negoziaketek bete-bete harrapatu zuten urte horretako Aberri Eguna, ETAren su etena igandean amaitzen baitzen. HBk milaka jarraitzaile bildu zituen Iruñean baina Jon Idigorasen esanetan Aberri Egun jendetsu hori ez zen konbokatu “Aljerren eragiteko”.

ETAren hilketek ere zeresan handia eman izan dute eta aberri egun batzuen joana markatu dute. 1976an, Frankismo osteko lehen Aberri Egunean, ibilaldi bateratua egitekotan ziren alderdi guztiak –PSOE, EAJ, LKI, EKA eta ezker abertzaleko hainbat alderdi–. Baina egun batzuk lehenago ETA(pm)k Angel Berazadi enpresaria bahitu eta erail zuen, eta EAJk, PSOEk eta erbesteko Euska-

Ezkerrean, 1979ko Aberri Eguna Donostian. Ezkertiar eta abertzale askorentzat trantsizio demokratikorik ez zen gertatu eta borroka armatuari eustea beste biderik ez zegoen. Eskuinean, 2000. urtean Udalbiltzak deituriko Aberri Egun bateratua; Lizarra-Garaziko akordioaren porrotak eta ETAren su-eten amaierak giroa erabat petraldu zuten indar abertzaleen artean.

diko Gobernuak babesa kendu zioten Iruñeko zitari. 1997an, berriz, Josu Zabala ETako kidearen hilotza agertu zen Itziarko zelai batean eta gerra zikinaren inguruko susmo eta salaketek busti zuten Aberri Egun hura.

Baina gatazka armatua eta atentatuak bakarrik ez, Aberri Eguna garaian garaiko eztabaiden ispilu ere izan da: Estatutua, autodeterminazio eskubidea, Nafarroa, euskara, Lemoiz, krisi ekonomikoak, Itoiz... Lekuaren aukeraketak ere sinbolismo handia izan du, 1967an Iruñera deitu zenean kasu, lurraldetasunaren adierazgarri: “Ez ahaztu, nafar, Iruñea dela berezko eskubidez Euskalerriko hiriburua”, zioen EAJk urte horretan –Aranaren alderdiak oraindik pisu handia zuen Nafarroan urte haietan, Aberri Egun horretan ikusi zen moduan–. EAJk ez zuen Gernikara 1964an kasualitatez deitu, ez eta Herri Batasunak 1987an, bonbardaketaren 50. urteurrenean.

Gauza guztien gaineretik, Aberri Eguna aldarrikapenerako tresna izan da: konfrontazioarako *ringa* eta adostasunerako mahaia. Orduan eta erronka handiagoa parean, orduan eta indar gehiagoz erakutsi dute giharra herritarrek Aberri Egunaren bidez. Hala izan zen Frankismoan diktaduraren kontra, edota Trantsizioan autogobernuaren alde, edo Lizarra-Garaziko garaian “nazio bat gara” esanez.

1962ko eta 1963ko Itsasuko aberri egunek ziklo aldaketa ekarri zuten ospakizun honen ibilbidean. Denborarekin ikusiko da laster beste ziklo aldaketa bat gertatuko denentz, horretarako osagaiak ez dira falta behintzat: ETAren amaiera, subiranotasunaren aldeko gehiengo politiko berri bat, Eskozia eta Kataluniako erreferendum egitasmoak... Eta ororen gaineretik: gure indarguneak eta gabeziak agerian utzi dituen krisi ekonomiko erraldoia. ■



Marta Cardenas

«Europako arteari begira bizi gara, baina adierazpide mordoia dabil munduan»

Erlea aldizkariaren 5. alea ilustratu zuen Marta Cardenas margolariak. Madrilen bizi den arren, Bilboraino egin zuen zenbaki haren aurkezpenaren kariatara. Oholtzara igo eta euskaraz hasi zen, Bidegoiango hizkera jatorrean, beraren lanaren berri herdoilik gabe ematen.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

Irakurri dugu *Erlea* aldizkarian Bernardo Atxagak egindako elkarrizketa, zure objektuen ingurukoa. Objektuez ez ezik, bizitzaz ere ari zara bertan, haurtzaroaz eta beste. Ikusiak ditugu zure mar-goak. Nola hasi zinen margotzen ez dakigu...

13 urte nituenean, gelako txikiena nintzen. Neska emakume egiten hasten zen garaia zen. Ni infantil xamarra nintzen, nonbait, eta mutil-ek gainerako neska guztiei begiratzen zieten. Niri ez. Neskak, orduan, ni baztertzen hasi ziren, mutilen gustukoa ez nintzelako. Neska haiek, gainera, nik ez bezalako interesak zituzten. Gregory Peck zuten haiek buruan, ez beste ezer, ez beste inor. Bakarrik geratu nintzen, eta hori sufrikario latza izan zen niretzat, lagunik ez izatea oso gaizki ikusia zegoen-eta. Adin horretan, neskak oso dira krudelak.

Eskolan bakardadea. Zer moduz etxean?

Etxean ondo. Begira, gure etxean arte zaletasun handia zegoen. Aitaren aldeko aitona arkitektoa zen, eta familia hartan denek marrazten zuten. Gure aitak berak, zoragarri marrazten eta margotzen zuen. Erraz egiten zuen. Hizkuntzetarako giroa zegoen, eta arte zaletasuna ere bai. Etxean ondo, eskolan gaizki! Ez nengoen gustura, eta mojak ere ez zeuden gustura nirekin. Arraroa nintzen, ez zekiten zer egin nirekin. Han, artaldekoa izan beharra zegoen. Deskuiduan komunitan erretzen bazenuen, bazekiten nola jokatu. Bazekiten zer egin mutilen atzetik zebilen neskarekin. Baina ez zekiten zer egin lagunik ez zuen neska arraro batekin, nirekin. Nik margotu egiten nuen,

nota onak nituen gai guztietan, asko estudiatzen nuen... baina "espiritu txarra" nuen. Omen. Alegia, mojek kontatzen zutena ez zitzaidala axola. Hala esaten zuten mojek. Nire nota onak gorabehera, behin ere ez ninduten gelako lehena jartzen. Bigarrena beti.

Nola askatu zen korapilo hura?

Sasoi hartan, Menchu Gal etorri zitzaigun etxera, ohi zuenez. Lehenago ere erretratuak eginak zizkigun, ahizpari, niri... Etorri zen batean, margotzen hasi nintzen neu ere, eta orduantxe, ni: "Hara, margolaria naiz eta! Margolaria! Zoragarria!". Margotzen hasten

Nortasun agiria

Marta Cardenas Diaz de Espada (Donostia, 1944). Leongoa zuen aita –sendagilea–, Donostiakoa ama. Deban udan ezagutu zuten elkar, eta Donostiara ezkondu. Hantxe sortu zen Marta, zortzi senideko familian. Arte Eder-erak ikasi zuen Madrilen, eta Parisen sakondu zituen ikasketak. 1970ean egin zuen lehen erakusketa, Chillidak bideraturik, Donostiako Huts galerian. Estreinako hartan izandako arrakasta lagun izan du harrezkero. Munduko kulturak maite ditu, haietan ikusten dituen bide mugarik gabeak, milaka urte dituzten aztarna biziak. Madrilen bizi da, Luis de Pablo musikagilearekin ezkondu, eta han ikasi zuen euskaraz.





nintzen, eta atera egiten zitzaidan margolana. Zoramena izan zen. Margoa bat-batean azaldu zen nire bizitzan!

Bat-batean?

Bai, bat-batean. Eta bat-batean deskubritu nuen, eta pentsatzeko gauza nintzen sasoian, begiek ikusten zutena paperean jartze hura sekulakoa izan zen. 1959 inguruko kontuez ari naiz... Erretratuak egitea gustatzen zitzaidan, pertsona bat, haren begiak, haren bizia, eta betiko utzi paperean. Beti zen ezberdina, beti, kasu bakoitzean diferentea, hutsetik hasia bezala, suspense eta guzti, magia zen! 15 urte nituen ordurako, Batxilergoko seigarren urtean, eta urtea neraman margotzen. Goizean goizago jaikitzen nintzen, bizpahiru urte neramatzan horretan, eta aita ondoan nuela, seieta-tik zazpietara margotu egiten nuen. Gero, gelan bakarrik sartuta margotzea gehiago gustatzen hasi zitzaidan, blok handi batean. Eskolara eraman, blok hari begiratu eta egundoko poza izaten nuen. Handik hilabete batzuetara, Usua Gabarain ezagutu nuen, hirugarren mailako ikaslea, eta hari ere margotzea gustatzen. Eskolara baino lehen, margotzera joaten ginen, ikasturte amaieran, goizean argia zegoenean.

Nora joaten zineten, zer margotzen zenuten?

Donostiako moila, Ulia, Igeldo, burdinazko zubia, Kontxa. Legenda bat egin zuten gure inguruan, gu margolari ginen, margotzen ibiltzen ginen, goizeko seieta jaikita! Igandetan ere horixe egiten genuen, gure koadernoetan margotu. Garai hartan bertan, idazten hasi nintzen. Asko gustatzen zitzaidan, eta gustatzen zait oraindik. Nire bizimodua kontatzen nuen, digeritzeko, nire inguruan zer pasatzen zen konturatzeko, entenditzeko, eta, behin edo behin, honetaz eta hartaz pentsatzeko. Zoriontsu baino zoriontsuago nintzen. Kezka bat besterik ez neukan, margotu ala

Euskara I

"Euskaraz hasi naiz baina ezin dut elkarriketa euskaraz egin, burua nekatzen zait, ikaragarri. Bernardo Atxagarekin bai, euskaraz egin nuen, hasi eta bukatu. Baina hilabeteak neramatzan Euskal Herrian, eta nahikoa dut denboraldi bat han, euskara niregandik erraz ateratzeko. Madrilen, ordea, zailagoa zait. Bada Durangoko mediku bat hemen, euskaldun peto-pettoa. Saiatzen naiz harekin, eta berak: 'Ez, ez, faborez, ikaragarri kostatzen zait eta!'".

idatzi? Berdin zion, artista izatea zen inportantea! Batxilergoa bukatu nuenean, udan, oleo kutxa eskatu nuen, eta erosi zidaten. Eta eskolak hartzen hasi nintzen Gipuzkoako Elkarte Artistikoan Jesus Gallegorekin. Oso irakasle ona. Marrazkiak hobetzen hasi nintzen, ikatza hartu eta itzalak egiten azkar-azkar, tiraderak forratzeko paper zurri handietan. Eta, batez ere, margolana borobiltzen ikasi nuen. Bagenituen modeloak ere, gazteren bat, Parte Zaharrean harrapatutako mozkorren bat... Sos batzuen truke, hantxe hura.

Usua Gabarain eta Jesus Gallego aipatu dituzu, bidean lagun...

Eta aita! Aitak hurretik segitzen zuen nire bidea, nire abenturak. Pozik zegoen, eta koaderno hartzeko eskatzen zidan beti, edozein lekutara joateko ere. Blok gabe ez zegoen artistarik, haren iritziz. Koaderno hartzeko eta hartzeko ari zitzaidan beti aita. Ahizpa Elenaren lehen jaunartzera, koaderno. Erromara -kongresu bat zuen aitak-, koaderno. Londresera, koaderno. Diapositibak egiten zituen aitak, eta gero, etxean erakusten zizkigun. Behin, han ari zen: "Eta hau Matxakita da, Picadillyn margotzen". Matxakita esaten zidan, Machaquito toreatzailearen izenean. Horrela aita, koaderno hartzeko niri beti, eta horrela ni, margotzen beti. Etxean asko lagundu zidatela esan nahi dut, benetan.

San Fernandoko Eskolan ikasi zenuen Arte Ederrak, Parisen ere ikasi zenuen... Natural-natural etorri zen dena?

Bai. Margotu ala idatzi, problema horixe besterik ez neukan. Aitaren lehengusu batek konbentzitu zuen ni margotzera bultzatzeko. Lehengusu hura margolaria zen, eta Madrilen bizi zen. Nik Arte Ederrak ikasteko esan zion, eta horrela. Ingalaterran egon nintzen, barnetegian, eta handik etorrira, 17 urte

Euskara II

"48 urte nituela ikasi nuen euskaraz. Eta primeran pasatu nuen, Madrilen nengoelako, baina euskaraz ikasten Euskal Herrian sentitzen nintzelako. Baina Donostian bizi izan banintz ez dakit ikasiko nuen, presio handiegia egin da-eta. Tira, ez dakit, beharbada ikasiko nuen... Madrilen jolasa izan zen euskaraz ikastea. Gero, urte askoan Goiatzen pasatu genituen udak, eta inguruko herrietan, ahal nuela, hitzik ere ez nuen egiten gaztelaniaz —senarrarekin izan ezik—, gorriak ikusi behar banituen ere, esfortzu ikaragarria bazitzaian ere. Bateko eta besteko herri, auzo eta baserrietara pintatzera joaten nintzenean, ni beti euskaraz".

nituela, Madrilera, Eskolara, ikasketak egiten hasteko nire burua prestatzera. Ikasketak egin eta beka izan nuen Parisera joateko, gehiago ikastera. Ondo nengoen han, eta hantxe geldituko nintzen. Baina handik Donostiara etorri irailean, ikasturtea hasi baino lehen, gurasoak ikustera, eta auto-stop egiten ari nintzela, Irungo irakasle batek hartu ninduen, marrazki katedraduna, lagun egin ginen, eta bertan gelditzeko konbentzitu ninduen. Eta irakasle izan nintzen institutu batean. Gero bota egin ninduten handik, garai hartako giroa horrelakoxea zen eta.


Nola etorri zen zure lehen erakusketa? 1970ean, Donostian.

Arte Ederrak ikasten hasi nintzen urtean, 18-19 urte nik, behin, zineman, Eduardo Chillida ikusi zuten gurasoek. Aitak lehendik harremana izana zuen Eduardorekin, nonbait. Eta esan zion: "Begira, hauxe da gure alaba, Marta. Arte Ederrak ikasteko hartu dute Madrilen. Margolaria da". Eta Chillidak: "Oso ondo". Nik esan nion gustura ikusiko nuela bere estudioa eta hau eta hura. Berak, baietz, hots egingo zidala. Baina ez zuen hots egin. Orduan,

eskutitza idatzi nion, bere eskultura lanak ikusi nituela Madrilen, Biblioteca Nazionaleko erakusketa areto batean. Haizearen Orraziaren lehen eskulturak ziren, eta eskutitzean esan nion gustatu zitzaizkidala, eta zergatik. Orduan bai, kasu egin zidan. Ikusi nuen lehenengoan Rafa Ruiz Balerdirekin ikusi nuen. Nire estudioa etorriko ziren biak gero, udan. Neguan, Rafaren eskuetan jarri ninduen Eduardok. Lanik gabe geratu nintzen hartan, erakusketa egiteko amorratzen nengoela esan nion Eduardori, zenbait lekutara joan nintzela margolanak erakustera, baina inork ez zidala kasurik egiten. Orduan, Eduardok Huts galeriako arduradunarekin hitz egin zuen, ikusi zituen nire lanak eta erakusketa egin nuen. Jende asko etorri zen, eta asko saldu nuen, gustatu egin zitzaion jendeari. Eta berehalaxe, Bizente Ameztoi, Zuriarrain, Carlos Sanz... inguratu zitzaizkidan, lagun izan ginen. Taldea osatu genuen, eta zenbait lekutan erakutsi genituen gure lanak, Donostian, San Telmon; Durango-ko Ezkurdia plaza inauguratu berrian; Bilbon, Grises galerian... Erakusketa bat bestearen atzetik etorri zen, ondo saltzen ziren nire lanak, eta ordu arteko eskolak eta gainerakoak utzi eta margotzen hasi nintzen, erabat.

Zer duzu, gaur egun, arkeologia zaletasuna, milaka urte dituzten marrazkiekiko afizio hori? Saharako zibilizazioen gaineko liburua ari naiz irakurtzen oraintxe. Historiaurreko garaitik hona, Saharan zer izan den aztertzen da bertan. Arkeologia ez ezik, antropologia gustatzen zait. Edo, nahi izanez gero, munduko kulturetako artea. Duela hogeita bost urte, ekialdera jo nuen, Txinako eta Japoniako artera. Berrikitan, Indiakora. Han izan nintzen 1996an. Herri guztien artea, beraz. Afrikako arte eta mitologia. Koaderno mordoak daukat idatzia, bateko eta besteko arteaz ere hainbat ohar, munduko kultura guztiak interesatzen zaizkit, eta garai guztietakoak. Himalaia, Kaukaso...

ATXASPI HOTELA



...ametsetan bezala

Bittiria, 24 · Lesaka (Nafarroa) · T.: 948 637 536 · hotela@atxaspi.com · www.atxaspi.com



AZKEN HITZA

Edorta Kortadi

“Erakusketa bat egitekoa nintzen, eta sarrera hitzak eskatu nizkion Edorta Kortadiri. Edortak pinturaz hitz egiten du. Besteek, ez. Honek soziologiari buruz, hark politikaz, eta, batez ere, filosofiari buruz idazten dute. Edortak ez. Nireztat Edorta da arte kritikaririk onena”.



Euskara III

“Gure aita Leongoa zen, ama donostiarra. Ezkondu zirenean, aita Donostiara etorri nahi izan zuen lanera, eta mediku militar lan egiteko oposizioak gainditu eta etorri zen. Ez zen batere militar zalea, oso irudimen handikoa zen, sortzailea. Urte batzuetan lan hura egin eta utzi zuen. Donostian, lehenengo-lehenengo gauza, euskaraz ikasten hasi zen. Zioen ikasten ez bazuen ezin zuela jendearekin hitz egin, jende askok ez zekien-eta gaztelaniaz. ‘Euskaraz hitz batzuk ikasi, besterik ez bada ere!’, zioen. Bizi osoa jardun zuen euskaraz ikasten, baina ez zuen inoiz lortu elkarriketa bat euskaraz egiterik. Zaila zitzaion”.

Zer duzu erakargarri munduko kulturetan?

Europako arteari begira bizi garela uste dut, gainerakoei guztiz itxita. Europakoa besterik ez dugu ikusten, eta, bitartean, adierazpide mordo dabil munduan, emozioak transmititzeko bide ezberdin pila, edertasuna sortzeko hainbat era. Zertan itxiko ditugu gure buruak? Ezta pentsatu ere! Ireki! Nik, nire margolan eta grabatuekin batera, Getarian hegaluzea deskargatzeari buruzko erreportaje grafikoa egin daukat, norbaitek argitaratu nahi-ko balu ere, zain. Itxita bizi? Ez. Ireki! ■



Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan kobratu SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPARRA
HERRIEN ERRIA

Multimedia kanal osoa sakelakoan ikusgai

Funtzio berriak dauzka ARGIAren telefono mugikorretarako webgune egokituak. argia.com-eko albisteak eta azken hamabi urteotako astekarien edukiak eskaintzeaz gain, ARGIAko multimedia kanala osorik bistaratu ahal izango du erabiltzaileak sakelakoan. Erabilgarritasuna erraztu asmoz, diseinu aldaketa batzuk ere egin ditugu, baita zenbait funtzio sozial gehitu ere. m.argia.com helbidean kontsulta daiteke.

LANDER ARBELAITZ

DUELA URTEBETE aurkeztu zuen ARGIAk mugikorretara egokitutako webgunearen lehen fasea m.argia.com helbidean. Bigarren bertsioa jada sarean kontsultagarri dago, eta hemen xeheago azaldu nahi dizkizugu egingadako aldaketak:

Gaurkotasuna. Argia.com-eko albisteak bistaratzen zituen orain arte, eta hemendik aurrera, egunetan atzera egiteko aukera izango du erabiltzaileak, nahi adina atzera joz. “Kargatu albiste gehiago” botoian sakatu eta kargatzen joango dira albiste zaharragoak.

Astekaria. Azken astekariko gai nagusiak argazki bidez irudikatu ditugu, eta argazki horiek hatzarekin mugituz, irakurri nahi den erreportaje edo elkarrizketa hautatu ahal izango duzu. Azpian astekariko artikulua guztiak daude zerrendatuta. Behin erreportaje edo artikulua batean sartuta, mugikorraren zabalerara egokitutako tamainan irakurri daitezke testuak.

Egilearen argazkia eta Twitter kontuak ere bistaratzen ditu webgune berriak.

Artxiboa. Azken hamabi urteotako astekari guztien hemerotekea eskaintzen du. Kronologikoki ordenatuta daude aldizkariak eta nahikoa da azalaren gainean hatzarekin klik egitea astekari horretako eduki guztiak zerrendatuta ikusteko.

Multimedia. Berrikuntza nagusietakoa da hau. ARGIA duela sei urte multimedia kaze-tarritza lantzen hasi ginenetik egindako guztiak kontsultatu daiteke sakelakoan. Horrez gain, 60 dokumentaletik gora dituzu, beste horrenbeste film labur, *Beranduegi* Web Telebistako saioak, bideo solteak, diaporamak... Dena mugikor mota ezberdinetarako prestatuta.

Funtzio sozialak. Gainontzeko irakurleek ARGIAko edukiei buruz dauzkaten iritzia irakurri eta zureak elkartrukatzeko



Sare sozialetara lotura zuzenak dituzu orri bakoitzaren azpian, nahi duzuna bi ukitutan zabaldu eta gomendatzeko

aukera gehitu diogu webgune egokituari. Iruzkinez gain, sare sozialetara lotura zuzenak dituzu orri bakoitzaren azpian, nahi duzuna bi ukitutan zabaldu edo gomendatzeko pentsatuta. Eta “E-postaz zabaldu” aukeran klik eginda, edozein pertsonari e-postaz nahi duzun artikulua bidaltzeko aukera dago, oso erraz eta inongo helbide luzerik kopiatzen hasi beharrik gabe.

Paperezko bertsioan QR kodeekin hasitako bidean sakondu nahi izan dugu honekin guztiarekin, mugikorraren bidez paperean irakurtzen dituzun gaiak zure ingurukoekin elkarbanatzeko eta zure iritzia emateko aukera gehiago baituzu hemendik aurrera. ■



Lehen urteetan pizgarri

0-6 urte artean garatzen da burmuinaren %90a. Funtsezko adin tartea da eta horregatik, ugaritu egin dira garapen horretan laguntzeko arreta eta estimulazio teknikak. Bi esperientzia jaso ditugu hemen: Juana de Arco haurreskolarena eta Itsuentzako Baliabideen Zentrokoa.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Argazkiak: Dani Blanco

URTEBETE INGURU DUTE eta txintxo eta lasai eserita daude ikasgelan, bi ilaratan. Marrazkiz eta argazkiz beteta dituzte paretak eta jostailuak barreiatuta daude han-hemen. Miróren txokoan, margolari katalanaren lanak ikus daitezke. Ispiluak “ispilua” idatzia daraman txartela du itsatsita, hormak “horma” txartela, mahaian “mahaia” jartzen du... Gaur argazkilaria eta biok gara umeen entretenimendua, baina haien arreta bereganatzen saiatu dira bi irakasleak. “Naroa” jartzen duen txartela erakutsi die irakasleetako batek. “Zer jartzen du hemen? Naroa; eta zein da Naroa?...”, eskua altxatu du Naroak, eta ikasle guztien izenak zerrendatzen jarraitu du irakasleak. Irudiekin berdin egin dute gero: marrazkiak erakutsi (batzuetan idatzitako txartelak) eta horien esanahia ozen errepikatu, kategoriatan banatuta (garraiobideak, meteorologia, etxeko tresnak, arropa, janaria, sukaldeko gauzak, ekintzak, animaliak...). Matematika saioa ere izan dute, irakasleak zenbaki batzuk esan ditu, eta kopuru hori adina puntu dituzten kartelak erakutsi dizkie haurrei. Amaitzeko, Beethovenen musika entzun dute kasetean.

2 urteko umeak aldiz, ikastetxeko gimnasioan topatu ditugu. Oztopodun hainbat zirkuitu prestatu dizkiete, hodi moduko baten barrutik ibili daitezen, bankuen azpitik arrastaka igaro edo egurrezko barra alderik alde zeharkatu, besteak beste. Horma-barretan zintzilik eta ohe elastikoan saltoka ere ikusi ditugu. 3 urtekoek korrika egin dute zirkuitua, lurrean jarritako uztaiak gaindituz, eta koltxonetan itzulipurdika aritu dira.

Juana de Arcon, euskaraz jarduten duen haurreskolan, ikusi dugu hori guztia; 20 urte

Oztopodun zirkuituak prestatu dizkiete, hodi moduko baten barrutik ibili daitezen, bankuen azpitik arrastaka igaro edo egurrezko barra zeharkatu

“Kontua ez da umeari etengabe estimuluak bidaltzea, dituen beharretan arreta jartzea baizik, mundura egokitzen laguntzeko baliabideak ematea”

**MERTXE ANDRES,
ITSUENTZAKO BALIABIDEEN ZENTROA**

daramatzate ahalmenen garapen goiztiarra lantzen eta egun 0-3 urte arteko 100 ume baino gehiago dituzte Donostiako ikastetxean. Estimulazio goiztiarraren bidez, haurra munduan dauden ezagutzak barneratzen joatea da asmoa eta hiru arlotan jartzen dute indarra: intelektuala (irakurketa, matematikak, musika, ingelesa...), fisikoa (mugikortasuna, brakiazioa eta oreka), eta

giza-arloa (portaera, harremanak eta gisakoak). Eredu horiek garatzeko lagungarri diren ariketak egiten dituztela azaldu digu haurreskolako kide Marina Garciak. Dienez, umeek ohiturak hartzeko eta zein jarduerarako zaletasuna eta erraztasuna duten antzemateko ere baliogarria da, eta gaineratu du umeak arazo neurologikoren bat izanez gero, patologiaren bat edo behar bezala funtzionatzen ez duen zerbait, halakoak hautemateko aproposa dela garapen goiztiarra.

Azken finean, oinarritzakoak dira lehenengo urteak, gure garuna orduan dagoelako malguen, ingurura egokitzen ari da eta gaitasun handia du ikasteko eta jasotakoa barneratzeko, xurgatzeko. Hargatik, metodologia eta ariketa ugari dago umearen hizkuntza, komunikazioa, koordinazioa, mugimendua, zentzumena, autonomia, afektibitatea, harremanak, adierazkortasuna... garatzen laguntzeko.

Kritikarik ere egiten zaie, ordea, ariketa goiztiarrei: haurrari estimuluak beti kanpotik iristen bazaizkio, ez du ikasiko bere kabuz ekiten, hartzaile baino ez

da izango, eta horregatik hainbatek dio umeari utzi behar zaiola estimulu propioak bila ditzan. Hutsune hori orekatzeko, bestelako jarduerak dituztela adierazi du Garciak: haurren sormena bultzatzeko, adibidez,

Proiektua delakoa dute, urtero gai ezberdin bati lotua, eta tailerrak, marrazkiak, ipuinak, praktikak... lantzen dituzte horren inguruan. Aurten, ura da gaia, eta arrainen irudiz betetako paretak ikusi ditugu geletan, akuariokak bailiran. Izan ere, ahalmenen garapen goiztiarrari denbora jakin bat eskaintzen zaio –adinaren arabera–, baina osagarria da; jolasteko, psikomotrizitaterako, lo egiteko eta bestelako jardueretarako astia ere hartzen dute haurreskolan, horiek ere garrantzitsuak dira-eta.

Itsuak ingurura egokitze

Hego Euskal Herriko hiriburuetan dauden Itsuentzako Baliabideen Zentroetan ere arreta goiztiarra lantzen dute 0-6 urteko haurrekin, umea itsu jaio bada edo ikusmen arazoak garapen ebolutiboari eragin badiezaioke –irudiak interpretatzeko arazoak dituenen, esaterako; ez ordea betaurrekoak jantzita ondo ikusten badu–. Gipuzkoako zentroko kide Mertxe Andresek arreta goiztiar esatea du gustuko, ez estimulazio goiztiar, “ez behintzat ulertzen badugu etengabe estimuluak bidali behar zaizkiola umeari, dituen beharretan arreta jartzea baita gure asmoa, zailtasunei aurre nola egin erakustea eta baliabideak ematea, duen gabezia agerikoa egiten zaionerako mundura egokitzen laguntzeko”.

Horretarako zer egiten duten? Itsuekin, orientazio espaziala lantzen dute jaiotzen direnetik. Esaterako, txintxirrina jartzen diete eskuinean eta ezkerrean, goian eta behean, jakin dezaten soinuak adierazten duela zerbait dagoela eskuinean, ezkerrean, goian edo behean, hartu eta ukitu dezaketela, baina soinurik egiten ez duenean ere, hor zerbait egon daitekeela ulertu behar dute. Guztiz itsu ez direnekin, duten ikusmen gaitasuna antzematen saiatzen dira batetik: zer ikusten duten eta zer ez, zein distantziatar, nola mugitzen diren eta ikusten al duten zapaltzen dutena, nola interpretatzen duten ikusitakoa... Bestetik, bakoitzaren beharren arabera ariketak prestatzen dizkiete, jolasa oinarri hartuta.



Goitik behera, lehenengo bi irudietan, Juana de Arco haurreskolan. Azken irudian, Mertxe Andres ikus daiteke ume batekin, Itsuentzako Baliabideen Zentroan (Andresek berak utzitako argazkian).

Umeak begi bakarretik ikusten badu eta horregatik burua alde horretara bideratzen badu, beste alde ere existitzen dela jakinarazteko jolasak, esaterako. Ordenagailua ere sarri erabiltzen dute: senideen argazkiak jartzen dizkiete pantailan, tamaina ezberdinetan, begiratzen eta begirada puntu jakin batean pausatzen ikasteko; edo ordenagailuko pantailan alde batetik bestera mugitzen den pilota ukitu behar dute, begiekin gauzen jarraipena egiteko eta begirada kontrolatzeko.

Dena den, Mertxe Andresek azaldu du integrala dela umearen garapena eta horregatik, ikusmenarekin batera beste hainbat arlo ere lantzen dituztela: mugikortasuna, arlo kognitiboa eta soziala. Eta batez ere, nabarmendu du funtsezkoa dela gurasoen parte-hartzea lehenengo urteetan, kasik lan gehiago egin behar izaten dutela aita eta amarekin: “Adibidez, ama batek esan zidan lehengoan bere semeak beste norabait begiratzen zuela berarekin jolasten zuenean, baina ez, umeak indartsuen duen zentzumena zuzentzen du amarengana: belarria. ‘Ai nire haur gaixoa’ esanez datozkizu batzuetan eta esan behar diegu ezetz, seme-alaba ondo moldatzen dela, bestela sentimendu hori igortzen diotelako, ezgauza dela; eta aldearantziz, umeak gabeziarik ez balu bezala etortzen zaizkizu beste hainbat eta horiei erakutsi behar diegu arlo batzuetan lagundu egin behar dutela seme-alaba”.

Arreta goiztiarra eraginkorra al den galde-tu diogu Mertxe Andresi eta itsuekin ezinbestekoa dela erantzun du; “gainerakoekin, nik neuk pentsatu izan dut, ez banu ezer landu ume honekin, nora iritsiko zatekeen? Agian leku berera, agian ez, baina nik uste ariketa lagungarriak direla, zailtasunei errazago aurre egiteko, eta horri esker gai ikusten dute beraien burua. Azken finean, lehenengo hila-beteak hain dira garrantzitsuak, munduarekin harremanetan zaude eta egokitzeko garaian segurtasuna ematen die umei, eta gurasoei zer esanik ez”. ■



TTAKUN (H)ERRENKA

Ttakun eta aparte

Konpasa eta melodia batera mugitzen badira ere, soloak oso inportanteak dira jazz-ean. Denetik pixka bat dakienak badaki hori. Bertsolaritzan bezala artikulugintzan ere badago bat-batekotasuna. Ez dakit gure “kontzertuetara” etorri diren irakurleek eurei entzutea gustatuko litzaiekeena aurkitu ahal izan duten bertan, baina hiru txalapartari *arrarok* nola inprobisatzen duten ikusteko aukera izan dute, arrarotasunaren sentimendua izan delako txanda bakoitzean interpretatu nahi genuen musika erabaki duena. Txalaparta Freak Jazz. Arras ederra, oso *flamenco fusion* estilokoa eta zeharo ausarta, *Variétés* honetan. Jenero zoragarri eta zaila. Baina Beñati ezin ongi uztartu ibili garela iruditu zaio, azkenean. Nik buruan beste ideia bat daukat. Alegia, hiruak elkarrekin, benetako familia *freak* bat bagina bezala aritu garela. Bagenekien zeren bila genbiltzan, baina Beñatek aipatutakoaren arabera, irakurle anitzek ez gehiegi. Kiko Venenori eta Amador anaiei antzeko zerbait gertatu zitzaizen, haien gertukoenen artean ezin zutela ulertu nolatan ausartu ziren ezarrita zegoen joera bakarraren eskemak apurtzera. Konprenitu ez. Jorge Oteiza euskal arima berreskuratzen saiatu zen, baina Eusko Jaurlaritzaren kultura politika ez zen enteratu ere egin. Gure herrian kultur kontuen pastelak badu ere bere alde maltzur pozoitsua. Erregina gaiztoak Edurnezuriri eskaini zion sagarrak bezala. Euskal kulturaren historia historikoan dudak ez dauka tokirik, eta begien bistakok diren gauzak are gutxiago. Izan ere, *Al final del túnel* eta *Extraterrestre* filmen estreinaldiak asteburu berean proposatzeko gauza den herriak Jainkoa bera jarriko luke bere existentziaren


CONCETTA PROBANZA



Jose Luis Padrón



Sarasola



Apaolaza

zalantzan. Beñatek eta Uxuek familia-intimitate horien barreneraino inkurtsio bat baino gehiago egin dute arrakasta handiz, agerian utziz, mundu guztiaren aurrean eguzkiaren leihotik leihora jartzen den arropa bezala, oraindik ere modernotasunak euskal mentalitatearekin lotzen oso zaila

izaten jarraitzen duela. Nik ikusi dudana da gure burua eta gure herria eztabaidan jarri ditugula gure ikuspuntuak guztiontzat azalduz. Garbitasunari gerra. Uxuek eta Beñatek gogotik alaiago ni baino, argiago, nik, aldiz, nekatuago, zakarkiago, pisutsuago. Denborak eta esperientziak hilotzak usteltzen hasiak utzi dizkidate fedearen ordeko. Hala ere, ez gara zer garen badakiguna, besteek zer garen uste dutena baizik. Eta hori, gurean, lege da. Herri txiki honetan denok elkar ezagutzen dugula uste izateak ez digu elkar ezagutzen uzten. Denok elkar ezagutzen dugula uste izateak etorkizunaren mugan uzten gaitu, bizitzaren mugan bezala. Hori da, Uxue, denon benetako porrota. Epaileen aurkako herri sutsua izan, eta epaileak baino epaileago izatea. Baina nekezago uzten zaio ezjakintasunari erretzeari baino. Eta kito. Zer ezagutzen nuen nik Beñat Sarasolaz? Euskal internautarik sexiena dela. Zer ezagutzen nuen nik Uxue Apaolazaz? Uxue Alberdiren heteronimoa dela. Ezer gehiago ez. Gaur, ordea, pena ematen dit haien konpainia utzi beharrak. Pena berriz bakarrik geratzea. Ez bainaiz batere aspertu; aitzitik, labor egin zait. Trosta bizi honetan lagun izan zaituztedala ez zait sekula ahaztuko. Eta Mikel Asurmendiri eskerak ere bai. Holaxe. Amaierak berriro heldu nau, eta ez dut puntu eta aparterik idatzi, baina prest nago.

Ttakun eta aparte. ■



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Joxerra Aizpuru

INDUSTRIA INGENIARIA

Argiarena ez dago argi

Iazko udazkenean CERNen izandako saiakera baten berri izan genuen mundu osoko hedabideetan; neutrinoak argia baino azkarrago higitzen direla ondorioztatu zen. Horren zantzuak aurkitu zituztela. Notizia baieztatuz gero, Einsteinen teoria kilikolo geratzeko arriskua zegoen, baita fisika modernoaren oinarriak ere. Martxoan, aldiz, gauzak bere onera etorri direla zabaldu da, frogatuta geratu baita udazkeneko saiakera hartan erabilitako tresnak behar bezala doitu gabe zeudela.

Gertatutakoaren oinarrian neurketa-akatsa izan dela ziurtatu zaigu, hedabideen bidez. Aldiz, inor gutxi esan digu laster beste saiakera bat egingo dutela CERNen. “Akatsen” hipotesia benetan hala ote den frogatu behar baita.

Bistan denez, korapilatu da gaia, baita galdera ugari plazaratu ere beronen inguruan. Hona batzuk: nolatan jo zuten behin betikotzat lehen saiakeran neurtutakoa? Noiztik dute ikerlariak horrenbesteko presa? Zenbait ikerlari automatikoki jarri zen aurka, zer dela eta? Zergatik onartzen dute orain hedabide gutxiak akatsen hipotesia?

Gaiarekiko distantzia hartuta, oso agerian geratu da hainbat gauza. Batetik, ekonomia interesak izugarriak direla, eta CERNeko ikerlariak derrigortuta zeudela garrantzizko zerbaite iragartzera, bereziki hainbeste diru inbertitu ondoren. Bestetik, ezer argia baino azkarrago



DANI BLANCO



Galileoren garaian,
Lurra borobila zela
esan zuen asko
erre zuten. Egun
ez dute inor hilko,
baina, agian,
zenbait aditu
ikerketaren
eremutik
baztertuko
dituzte



higitzea posible izango balitz ere, fisikari askok ez luketela hain erraz onartuko, zientzian ezarritako ordena aldatzeko prest ez daudelako. Azkenik, munduko hedabideak nahi bezala manipulatzeko dituztela.

Boterearen/diruaeren/ohituraren elkarketa berriro agerian dago. Galileoren garaian, Lurra borobila zela esan zenean, baieztapen horren aldeko asko erre egin zuten. Egun ez dute inor hilko, baina, agian, zenbait aditu ikerketaren eremutik baztertuko dituzte.

Ez dakit CERNek egindako ikerketan akatsak izan ote diren. Ez dakit CERNeko ikerlariak ospea azkarregi behar ote zuten, baina badakit munduan, orain eta lehen, gurpil ekonomiko-kulturalari ez zaiola interesatzen argia baino azkarragoa den zerbaite existitzea; fisikaren oinarriak goitik behera aldatuko lirakeelako, urrutiko izarren distantziak birkalkulatu beharko lirakeelako, argiaren teknologia menperatzeak ez lukeelako abiadura-mugak menperatzea ekarriko.

Eta hala eta guztiz ere, Erlatibitatearen Teorian adierazitako muga gaindituko izana egia balitz, ez nuke esango Einsteinek kale egin zuenik (zenbait artikulutan, ikusgarritasunaren bila-edo, adierazi den bezala).

Gizakiak urrutiago heltzeko grina irudikatuko lukeen adibiderik ederrenetakoa dela esango nuke. Ametsei eusteko bidea dela. ■



TXANDAN

Joxerra Garzia



Zuk-eman-ta-nik-bartu sisteman heziak (eta hesiak) garaigu, joan den mendeko kume izatera kondenatuak betiko.

Oraingo sisteman, denek hartu ez ezik denek ematea omen da kontua. Akabo eman gabe hartu behar tristea: hartu orduko emateko eskubidea du mundu guztiak.

Hamaika aldiz gustura kantatuagatik, bagenekien gezurra zela, aitona-amonak eta neska-mutilak ez zirela aritzen *txikili-txakala egiten*, ez Azkoitiko Azkaraten ez parajeotan beste inon ere.

Sistema zaharraren mendeko izaki, gauza bera

Seta eta tema

gertatzen zait 2.0 esaten dioten komunikazio sistemarekin. Giza-komunikazioa erroto eta behin-betiko aldatu(ko) duela? Baliteke, baina sistema berriak ere ez ditu, bada, *bentaja guztiak*.

Hedabideetako kirol emankizunetan ohikoa dena (narrazioan entzuleen iritziak tartekatzea), filmetan ere egitearen aldeko hotsak entzun ditut, eta antzerkiaren txanda izan liteke hurrena...

Seta eta tema omen zaharraren sistema. Ni hasita nago berriz “ez dira pasatuko” marmar zaharrean. Fortuna hobea beharko dugu oraingoan. ■



Jakes Bortainu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA

Eztabaida instituzionala argitzen ari

Aspaldikoa da instituzioari buruzko eztabaida Iparraldean, baina azeleazio nabarmena hartu du azken hilabete hauetan. 2010eko abenduan frantses parlamentuak onartu zuen Lurralde Elkargoaren erreformak arkitektura instituzionalen uniformitatearen printzipio sakratua urratu zuen, eskualde batzuentzat aukera berriak irekiz (ad: Alsaziako erregioa eta bi departamenduak batuko dira). Ipar Euskal Herriarentzat aldiz *Pays* egitura juridikoa deuseztatuz, 1994tik abiatu eta eraiki gobernantza dispositiboa (Garapen eta Hautetsien Kontseiluak) oinarririk gabe utzi zuen. Mehatxu konkretu horrek gustatu ala ez, etorkizun instituzionalari buruzko eztabaida saihestezina bihurtu du.

Denbora berean, Euskal Herriko egoera politiko berriak lerroak mugitzen lagundu du, urteetan Frantziako Estatuko buruzagiek erabiltzen zuten argumentu-estakurua jokoz kanpo utziz: bortizkeriak irauten zueno ezin zen ezagupen instituzionala onartu, borroka armatuari amore ematea izanen zelakoan eta ETaren kontrako Madrileko borroka trabatuko zuelakoan.

Azken faktorea eragile batzuen urteetako lanaren fruitua dugu: abertzaleen aldarrikapenak eta bereziki Batera plataformaren lana, hamar urtez lan pedagogikoa mobilizazioekin uztartu duena. Faktore horiek



DANI BLANCO



Irekitako bidea nekez

hetsiko da orain.

Ondoko hilabeteetako

eztabaida erabat

loturik dauden bi

mailatan garatuko da:

Lurralde Elkargo horren

eskumenak eta beste

instituzioekiko

harremanak



guztiak Garapen eta Hautetsien Kontseiluak pasa den azarotik antolatu duten ikerketa lanen iturburuak izan dira. Alde batetik mota guztietako eragile sozial, kultural eta ekonomikoak sei lan taldeetan elkartu dira, politika publiko guztiak banaka ikertuz eta nondik kudeatu behar diren definituz, balizko instituzio baten eskumenak marraztuz. Denbora berean jurista talde batek frantses legediak eskainitako hipotesi guztiak aztertu ditu, inolako taburik gabe, aterabide bakoitzaren abantailak eta mugak agerian utziz. Paraleloki 40 pasa elkarriketa egin dira eragile politiko eta sozialekin, ordu arteko iritziz bilketarik zabalena. Martxoaren 8an, konklusioak aurkezterakoan beste eszenatoki batera heldu garelako irudia eman da: Lurralde Elkargo baten sorrera hipotesia sinesgarrien eta hoberena bezala aurkeztua izan baita.

Irekitako bidea nekez hetsiko da orain. Ondoko hilabeteetako eztabaida erabat loturik dauden bi mailatan garatuko da: Lurralde Elkargo horren eskumenak eta beste instituzioekiko harremanak. Jokoa dagoena zera da: Lurralde Elkargo hau departamendu barnean kokatuko ote da, Pirinio Atlantikoak departamendua ordezkatzuko ote du Euskal Herriko lurraldean edota Akitania erregioa ere bai? ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Donibane Lohizuneko Urdazu-bi ibaian. Arratsaldeko lauak aldean, hogeita lau gradu. Bero.

Antolatzaileen xapitoan, plastikopean auskalo, hogeita hamarretik goiti. Hirurehun bat arraunlari, neskak, mutilak, gizonetakoak eta emakumeetakoak. Kolore gaitzeko elastikoak, horiak, arroxak, moreak, urdinak, berdeak... Mende bat baino gehiagoko tradizioa duen kirola zein abandonatuta daukagun baieztatzeko egun egokia. Banaka, minutura. Gazteenetatik hasita mailaz maila guztiak lanean. Ikusleak eta klubetakoak zenbatuta arraunlariak beste. Ez gehiago. Kronometroak dantzaz, animuak doinu.

Batelak

Bi orduko ikuskizuna sesiorik gabe burutua. Sekulako lan profesionala poz truk egina, egunerokoan oinarritua. Eta hasi aurretik ikusi gabeko ontzien garraiatzea, mimo handiz tratatutako materialak eskatzen zuten arduraz aritu ziren klubetako laguntzaileek harritu ninduten berriro ere, jakinik, onenean, hedabideek emaitzen berri soilik emango zutela, han parte hartutako inoren izenik ez genuela prentsan ikasiko. Estropaden ondoren arraunlarien gorpuzkerak eta errekupezioak ikusita, inork ezingo du esan alferrik dabilzala, metatutako nekeek etorkizun osasuntsua ekarriko baitiete. ■



BERTSO BERRIAK

Jexun Mari Irazu Muñoa

Gorriak eta moreak



DANI BLANCO

I

Nola goi-xamar buka lezakeen
behe antzeko jatorriak,
loreak ere guk bezalaxe
izaten ditu zorriak.
Larroxak jada arantza gutxi
ta ximeltzear orriak,
bakanak nonbait, moreak bere
egin gabeko gorriak

III

Ezker ibarrak bizi zintuen
nola Haitzuloak Platon
Ta itzaletik *Aldaketari*
zenbat mesede zenbat on.
Zerori ere tarte gutxian
aldatua zara sakon
lehen bostehuneko billete zinen
ta orain trukeko txanpon

V

Ordain gabeko besteren ona
Ebanjelioko zitan.
Gaur egunean zeharo gaizki
ez legoke politikan,
ezker eskuak ez beza jakin
eskubiak eginikan,
jakin ez ezik, gehitxotan dabil
eskuinaren inbiditan

II

Ai Meltxor, Meltxor, koinatu ez ezik
Castron errege mago da,
bere urreak zenbat intsentsu
zabaldtu duen albora.
Zu Urdangarin ez zara baina,
patu berbera gerora:
handiagoek bota zaituzte
paradisutik kanpora.

IV

Klik! Botoi bati sakatu eta
ze nolako ondorenak.
Pertsona baten patriketara
begira jarriak denak,
zer pentsatua ez al du ematen
horrenbesteko ahalmenak,
zenbat tapatu ote dituen
bat bistaratu duenak

VI

Behin kristalezko poltsikoekin
azaltzekotan zen Lopez
Ibarra, Bravo, Madrazo, Meltxor..
izen gehitxo lehen kolpez.
Dopina ere politikara
heldu ote kasu soltez...
ze, eman, gutxik ematen dute
ta hartu, hartu inork ez.



DOINUA: Esplikatzera nua kontuak



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Ander Lipus

«Kaosean sorkuntzak beste dimentsio bat hartzen du»

Iñigo Ibarrenaren laguntzaz jarri dugu hitzordua Ander Lipusekin, ez baita erraza teatroari estuki loturik bizi den izaki berezi honen arrastoa jarraitzea. Elkarrizketa hau plazaratu den unean Aulestiko ADELen prestakuntzan dabil buru-belarri. Horri buruz eta Antzerkiola Imaginarioak azken hatsa eman zuenetik egin dituen lanei buruz mintzatu gara. Haien artean, proiektu berriak bideratzeko sortu duen Huts teatroa izan dugu hizketagai.

OIER GUILLAN

Argazkiak: Dani Blanco

TEILATUTIK HASI GARA berbetan, eta berregituraketa baten ondoren dagoela esan digu. Arte-drama plataforma sendotzen eman du urtea, lankide berriekin eta Kultur Leioan erresidentzia egonkorra lortuta. Bertan antolatuko dute maiatzean Maratila izeneko jaialdi berria. Bestetik, Antzerkiola Imaginarioaren garaia guztiz itxita, Huts teatroa izeneko gorpuzkera berria sortu du. Xabier Mendiguren Elizegik idatzitako *Publikoari gorroto* izango da izen horrekin taularatuko den lehen lana. “Huts teatroaren bitartez euskara hutsez lan egitea dut helburu, eta momentu honetan behintzat, bakarrik”. Mapa imaginarioan mugitzetik mapa geografikoan kokatzera pasa dela esan digu.

Antzerkiolaren krisi fasea pasa eta gero, nola-bait berregituratu eta *Babiloniako loreak* etorri zen. Orain etapa hori guztiz itxia dagoela esan daiteke?

2011n Barakaldon egin genituen azken bi emanaldiak, bukaera izango zenik jakin gabe. Gutxika-gutxika proiektua agortu egin dela uste dut, ez zelako sostengatzen hasierako talde espirituarekin. *Babiloniako lorea*ekin emanaldi gutxi eman genituen, obra euskaraz eta gaztelaniaz egiten genuen, eta orain argi daukat euskaraz egin nahi dudala lan. Mapa geografikoak zerikusia dauka horretan. Madrilen ikasten nengoenean erdaraz egiten nuen lan, Bilbon euskaraz eta erdaraz, orain Berrizen bizi naiz eta euskaraz egin behar dudala uste dut.



Antzerkiolaren amaierak eragin dizu estetikoki, gauzak kontatzeko moduan?

Nire imajinazioan ate batzuk zarratu behar izan ditut. Ez da zerotik hastea, baina bai pixka bat hutsetik. Orain ez dut uste estetika berri bat dudarik, baina badago beste bide bat urratzeko beharra. Agian horren atzean beti egongo da Ander Lipusen figura edo fantasma, horregatik ez da zerotik hastea, baina pertsonaiak eraikitzeke orduan dagoeneko badago beste zerbait. Antzerkiolan pertsonaiak imaginarioagoak ziren, kutsu sinbolikoagoa zuten, eta orain hurbilagotik ari naiz publikoari zerbait komunikatu nahian. *Erregea eta bufoia* edo *Errautsak* bezalako lanetan badago toke naturalista edo errealistago bat. Horrek pena ematen dit alde batetik. Agian gehiegi esatea da, baina nik uste dut euskal publikoari ez zaizkiola gustatzen gauza oso “zoroak”. Niretzat *YuriSam* da egin dudan obrarik ederrenetarikoa eta osatuena, eta hemen ez zuen asko funtzionatu, ezta *Babiloniako loreak* ere.

Konpainia lortu zen, zailena denboran irautea izan zen beraz.

Bai. Barne istiluak eduki ahal dituzu, baina gauza horiek konpon daitezke. Zailagoa da bide berean ikuspegi antzekoarekin proiektu bat bermatzea teatroan ditugun laguntzekin, zeintzuekin teatroa odolustea bezala den. Talde baten funtzionamenduan sentimendu eta mekanika batzuk daude ez direnak merkantzia batenak. Zein da Hegoaldean daukagun konpainia mota? Produktora bat, obraren arabera aktorea kontratatzen duena, eta listo. Taldearen zentzua lortzen dute soilik konpainia gazteek, edo semiprofesionalki ari direnek, edo amateurrek. Horregatik ibiltzen naiz asko amateurekin, asko gustatzen zaizkidalak dinamika horiek, plazer handia delako hama-bost jende zuzentzea. Bestela, momentu

honetan bakarrik nago, txakurrarekin. Bera azaltzen da nirekin argazkietan (barrez).

Azken urteetan zure pertsonaien karabana izan duzu bidelagun. Zer suposatute pertsonaia horiek?

Lehengo komedianteen bizitza egitea da pixka bat. Karabanako pertsonaiek badaukate antzerkiaren toke malenkoniatsu hori: nire barruan dauden beste ni batzuk dira eta nirekin datoz. *Publikoari gorroto* lanean ere aprobe-txatuko ditut. Gure instrumentua gorputza eta ahotsa dira, eta horiekin gauza batzuk egin ahal ditugu, baina ez denak, beraz ondo aprobe-txatu behar dira. Pertsonaia horiek dira nire konpainia, nire Huts taldea, bidaietan maletan gorderik daramazkizun pertsonaiak.

Errautsaken kasuan ez zegoen konpainia bakar eta oso bat, baina hor ibili zaretenon artean sekulako kimika dago, nolabaiteko sare bat osatu duzue elkarrekin lan eginez beste obra batzuetan ere: *Aulki hutsa*, *Ibañeta*...

Bai, eta kimika hori haustearen beldur naiz, eta ausartuko naiz esatera, gara. Hori ez hausteko ondo zaindu behar ditugu bakoitzaren mekanikak. Le Petit Theatre de Painen mekanikak, Artedramarenak eta Dejaburenak berez oso ezberdinak dira, horregatik arrisku handia dago zerbait bateratua egitean dena pikutara joateko. Elkar laguntzen jarraitzen dugu eta hori bera egon behar da beste gauza guztien gaineratik. Hori da egin dezakegun paktu bakarra, jakinda paktu hori ere apur daitekeela edo-noiz. Lehen pentsatzen nuen paktuak ez zirela inoiz apurtzen, baina ez da horrela. Oraingoz beste mapa geografiko polit bat sortu dugu, hiru irlarekin: Bizkaian, Gipuzkoan eta Behe Nafarroan. Horrelako hariak landu behar liratekeela uste dut, baita beste era batean ere, beste batzuekin. Egun nahiago ditut horrelako

Zazpigarren ADEL, Aulestin

Apirilaren 9tik 15era egingo da ADEL Aulestin, eta aurreten ere ohiko formatuari eutsiko dio: batetik, formazioaren arloan Iñaki Ziarrustak, Ana Elordik, Asier Sotak, Eñaut Gantxegik eta Ander Lipusek berak emango dituzte klaseak, bestetik Joxe Mari Karrereren kontaketa, *Ispilua*, *Tzimi*, *Gabriel-gabrielle*, *Gloriaren kantua* eta *Xentimorik gabe* emanaldiak ikusteko aukera izango da. Krisia dela medio aurtengoan ez da erraza izan ADEL egitea. “Orain arte Aulestiko Udalak sostengatu izan du proiektua bere osotasunean, sekulako apustua izan da haiena. Krisia dela medio, aurreten beste bide batzuetara jo behar izan dugu, instituzio handiagotara. Zazpigarren topaketa egin egingo da, baina nahiko

kolokan egon denez, ikusi beharko da zortzigarrenarekin zer gertatzen den”. ADEL-en ikusi ahal izan dute sekulako eskaera dagoela hala formakuntzan nola euskaraz lan egiten dutenentzako erakusleio eta topaguneetan. Lipusen ustez “espazioak behar dira, eta espazio horiek zigilu bat behar dute. Aulestik hori lortu du, zigilu bat non jende bat biltzen den antzerkiar gozatzeke”. Merkatuaren logika tradizioaletik kanpo geratzen dira horrelako ekimenak “nik eskertuko nukeena da dirua edo kultura kudeatzen dutenek oso estruktura-tuak dauden gauzez gain esparru bat uztea kaosari. Nik sentitzen dut kaosean sorkuntzak beste dimentsio bat hartzen duela”.

hariak sortu bestelako estrukturak baino, zeinetan gehiago borrokatzen den estrukturaren interes propioen alde. Gauza hauek guztiak merkatuaren barruan ulertzea zaila da, baina momentuz nahiago dut proiektu bakoitzari bere taldea egin eta amaitzean disolbatu.

Errauntsakekin barruan kimika egon da, baina baita kanpoan ere, normalean antzerkira joaten ez den jende asko gerturatu baita ikustera. Hor ikusten da lehen aipatu duzun euskal publikoarekiko komunikazio hori?

Errauntsaken gauza interesgarri eta erakargarri asko batzen ziren, hori berriro lortzea ez da erraza izango. Momentu jakin batean indar jakin batekin abiatu ginen eta bonba bat izan zen. Publikoak eskertzen du euskal imaginariotik lan egitea, ez da tontoa eta estimatzen du taldearen indar eta konpromiso horrekin sortua den zerbait.

Aipatu dugu dagoeneko Huts teatroa, zure erreferentzia berria. Zeintzuk izango dira lehen urratsak?

Lehenik eta behin nik Huts teatroa geografikoki kokatu nahi dut. Barkoxetik Balmasedara eta Ondarroatik Tuterara, euskara hutsez lan egingo du. Momentuz proiektu bakarra daukagu esku artean, Xabier Mendigurenen *Publikoari gorroto*. Testua irakurri nuenean oso bortitza iruditu zitzaidan, baina horrek zerbait mugiarazi zidanez, aurrera eramatea erabaki nuen. Askok motibatzen nauen talde lan bat sortuko dugu, Manex Fuschek zuzenduko du eta jende askok parte hartuko du: Idoia Beratarbidek jantziak egiten, Asier Ituarte musikarekin, Dejabu eszenografian, Artedramak ekoiztuko du... Azaroan eta abenduan lehenengo bira potentzia egin nahi dugu. Dagoeneko programatzaile batzuk arriskatu dira ezer ikusi baino lehen datak jartzera.

Ematen du egun ekidin ezina dela krisia aipatzea. Baina badu zentzurik krisiaz hitz egiteak, benetan eragiten du gogoeta, edo besterik gabe orain tokatu zaiguna da beste garai batzuetan beste gauza batzuk egon diren moduan?

Bai, nik horrela sumatzen dut. Niri handi egiten zait krisi hitz hori, ez dut ulertzen zer ostia den, nik bakarrik dakidana da emanaldiak egiteko diru gehiago gastatzen dudala gasolinan. Hori da esan ahal dudana gauza bakarra krisiari buruz.

Zerk bultzatzen zaitu funtsean gaur egun teatroa egitera?

Publikoarekin ematen diren aldaketa emozionalek edo bizipozak mantentzen naute piztuen. Kuriosoa da, bi aste daramatzat buruko



minarekin, sinusitisarekin, eta minik eduki ez dudana une bakarrak emanaldi momentuak izan dira. Agian horrek salbatzen nau eta horregatik jarraitzen dut teatroa egiten. Berriro maitemindu nahi dut egiten dudarekin, baina zaila ikusten dut. Egia da duela urte batzuk esan nuela nekatur nengoela eta ilusioa galdu nuela, baina ilusio gabe lan egitea gaitza da. Bestetik, duela gutxi haurrentzat prestatu dugu *Idazlea zen zara* emanaldia, eskoletan haur gutxiren aurrean egiteko, merke, eta konturatu gara beste zerbait eskatzen dela: zerbait masiboa, eta ez halabarrez eskoletan pentsamendu kritikoa jorratzen duena... horrek ere bultzatzen nau, *malaostia* hori edukitzeak, proiektuak beste era batean egiteko gogo horrek. Hau da ezarrita dagoena? Ba jada ezarrita badago, zertarako egin behar dut nik? Gertatzen dena da hor egoteak, independente izanik periferia batean ibiltzeak, asko erretzen duela. Baina bestela ez dago salbatzerik, hipopotamizatzen zara. Ezin naiz kexatu, kostata baina antzerkitik bizi naiz, eta hori ez da broma. Baina noiz arte egongo naizen horrela, hau da, norberak nahi duen antzerkitik norberak nahi duen proiektuetan ahal denik eta bortxarik gutxienarekin lan egiten... interrogante bat da. ■



Moonpalace Records

Pasioz eta mimoz

Moonpalace Records zigilu diskografikoak 9 urte daramatza merkatu nagusitik at sortutako musika independentea kaleratzen, pasioz eta mimoz, dirua baino eskaintzaren koherentzia bilatuz.

IRATXE ESNAOLA

Argazkiak: Dani Blanco

JUANRA PRADOK 35 urte ditu eta Enpresa Zientzietan diplomatua da. Badu bere lana, baina aisialdian diskoak editatzen ditu “beste batzuk korrika egitera irteten diren bezala”. Donostiako Gladys Enea parkean elkarrizketatu dugu eta bere jarrera bareak, zigiluaren ikurra den Dodo txoriak bezala, editatzen duen musika lasaiaren adierazle dirudi. “Bakarrik lan egiten dudanez nire gustuen arabera hautatzen dut musika. Soinu barea eta sustrai antzerakoak dituzten taldeak bilatzen ditut, erosleak koherentzia bat topa dezan zigiluan”. 23 lan atera ditu orain arte, 100 disko inguruko edizio mugatuak plazaratuz. Indie, folk zein pop alternatiboa belarrien gozagarri. Espainiako artisten eskutik Segunda Vedette edo Ursula taldeak ezagutu ditugu. Belarria Europa aldera luzatuz, Burzinski artista frantziarraren ahots lokartua eta Erresuma Batuko Tex La Homa taldearen malenkonia, besteren artean. Euskaldunak ere badira katalogoan: Manett, Saioa, Elurretan eta Joseba Irazoki. Pradok musikari maila teknikoan eskurik sartzen ez badio ere, ongi lanpetuak izaten ditu hatz-mamiak diseinu lanetan. Diskoe-txeko bereizgarri dira kartoiz, kartoi mehez, kautxuz eta seiluz sortzen dituen kaxak. Saioaren *Matrioska heart* diskoa matrioxka itxurako kaxa eder eta kurios baten barruan dator. “Balio erantsia diseinuarena da. Ez da plastikozko kaxa huts bat. Pertsonalizatuak dira”.

2000. urtean hainbat talderen bilduma lan batekin ekin zion musika editatzeari. Fabrikatik pasatako lana izan zen hura: “Mila kopia egin genituen. European eta mundu osoan zehar saltzen zen. Eromena zen. Nazkatuta amaitu nuen burokrazia eta administrazio lanekin. Orduan erabaki nuen beste modu batera lan egitea”. Dirua irabaztea ez da lehentasuna Moonpalacen. Ezta aukera bat ere, autofinantzatzeko izaten baita ateratakoa.



“Dirua irabazteko tentazioa baino, dirua ez galtzeko tentazioa eman izan dit” dio umorea galdu gabe Pradok. Disko batzuk oso ondo saltzen dira eta beste batzuk ez. Batzuek besteak konpentsatzen dituzte. Nolanahi, Pradoren helburua atsegin duen lanean jardutea da. “Errealista naiz. Editatzen dudana musikarekin bizibidea ateratzea ezinezkoa litzateke, ziu-rrenik. Eta, hala ere, ez nuke nahi. Ahal dudana neurrian lan eginda hartzen dut atsegin”.

Editatu dituenen artean, izan dira batere seilurik izan ez eta beragana jo duten sortzailak. Baina askok ez dute beste seilu handiagorik nahi. Goranahi berezirik gabe ekin diote Pradorekin lan egiteari, katalogoa atsegin zutelako. Ez dio kalterik ikusten berak zigilu handiagoei. “Beharbada talde batzuk hala nahi izango balute zigilu handi batera helduko lirateke. Hala balitz primeran! Poztuko nintzateke”. Bidehuts bezalako proiektu autogestionatuek ondo funtzionatzeko dutela uste du, baina maila apalagoan ez du ezagutzen berea bezalako zigilu txikirik, apenas. “Euskadi mailan betikoek diraute. Gaztelupeko Hotsak, Gor... Lanak autoeditatzen dituen talde ugari dago, bestalde. Eta ona da hori. Erraza da eta jendearengana irits daitezke”.

Euskaldunak eta egile eskubideak

Euskal musikarien lanak grabatu aurretik, euskaldunek ez zioten diskorik erosten. Espainiako beste txokoetatik jasotzen zituen eskaerak. Joseba Irazokiren aurreneko lanarekin aldatu zen egoera, *Folk me, laztana* izeneko lana Brian Michael Roff artistarekin atera zuenean 2006. urtean. Artista bakoitzaren bosna abesti editatu zituen Pradok eta horri esker hasi zen euskaldunen artean salmentak egiten. Urtebete geroago, Saioaren *Particular Land* lehen lanarekin areagotu zen joera. “Euskaditik jaso nituen lehen eskariak bi artista hauen lanak jasotzeko baziren ere, orain erosle berberak katalogoko lan gehiago eskatzen dizkirate. Horretan lagundu du Joseba Irazokik. Leku askotan jotzen du, jende ugari ezagutzen du eta bere bitartez jendea zigilua ezagutzen ari da”.

Bandcamp plataforma erabiliz katalogo osoa entzun daiteke interneteko atarian. Kalitate bikaina du eta nahi adina musika koloka daiteke. Deskargagarri ez badaude, ez da deskargen aurkako filosofiatatik. Aipatutako esku lanari emandako garrantziak du

Nola kontaktatu

Interesa duenak
info@moonpalacerecords.com
helbidera bidal ditzake abestiak,
zigiluaren estilora egokitzen direla
frogatu ostean. 24. lana maiatzerako
izango da entzungai eta erosgai
<http://moonpalacerecords.com> atarian.

**“Ez hartu serioegi.
Atseginenez aritu. Nik ondo
bereizten dut zaletasuna
dela eta ez profesioa”**

JUANRA PRADO

errua, diskoa objektu bezala zaintzearen alde dago. Espainiako Diputatuen Kongresuan onartu zen Sinde legea iragan otsailaren 15ean. Deskargak egitea ahalbidetzen duten atariak ixtea baimen dezake lege honek. Autore esku-bideen gainean Moonpalaceko musikariek hautu ezberdinak egin dituzte. “Artista batzuek SGAEn erregistratzen dituzte kantak, beste batzuek ez. Nik ez dut esku-

biderik eskatzen, kopiak ateratzeko behar dena bakarrik”. Deskargagarri ez badaude ere, bada salbuespenik. Joseba Irazokik *Euria ari du* jaisteko moduan ipini nahi izan zuen. Artista gehienentzat helburua ez da salmentekin dirua egitea. Promozioa eta kontzertuak lortzea baizik.

Profesioa eta pasioa

Gaur arte aurkeztu dituen musikarien hautua bide ezberdinetatik egin izan du Pradok. “Jendea nigana etorri izan da zigilua ezagutzen zuelako eta beste batzuk nik bilatu izan ditut webgunetean”. Bederatzi urteko bide luzean inoiz erretiratzeko gogorik izan duen galdetu eta irribarrez erantzun digu inoiz nekaturik sentitu arren, pasioak proiektua mantentzera daramala. Beti heltzen zaio musika berriren bat belarrietara. “Atera dudana azken

lana, House of Wolves taldearen *Fold in the wind* izeneko, urtetan entzun dudana gauza ederrenetakoa da. Iaz proiektua baztertu izan banu ezin izango nituzkeen plazaratu! Beti agertzen da tentatzen nauen musika berriren bat”. Hasiberrientzako aholkua eskatu eta norbere burua ez behartzeko gomendatu digu: “Ez hartu serioegi. Atseginenez aritu. Nik ondo bereizten dut zaletasuna dela eta ez profesioa”. ■



Kontseju jatetxea



- Eguneako menuak
- Ospakizunak
- Asteburuko menu bereziak
- Plater konbinatuak

© 943 683 327 / 656 710 073

Hirigunea, 1 · Elduain (Gipuzkoa)

Liburuak


KRITIKA

Gure historiaren pasarte bat

Helduen literatura

Gema Lasarte

LIBURU BATEK nigan norainoko eragina izan duen neurtzeko baditut sistemak, zuk irakurle zerorrenak izango dituzun bezalaxe, bat dudarik gabe irudien kontua da: zer irudi uzten dizkidan liburuak katramilatuta ene errailetan. Beste bat, liburua bukatzeaz, bukatu beharrean hasieratik segitzeko joera. Horixe gertatu zait *Twist*ekin bukaera aldera hain ohitua Lazkano, Soto eta Zeberioaren bizi edo heriotza legeekin ezin ametitu haiekiko hura bukatzea zihoa-la. Indar handia du eleberriak. Eta ezin bestela, gure historiaren pasarte baten berrirakurketa baita Canok proposatzen diguna. Gurean bi gazte akabatu eta karez desagertu zituzten eta idazleak hura bizi izan zuen orori ahotsa eta fokua jarri dio fikzio historiografikoa izan daitekeen literatura lan honetan. Beraz, heriotzaz, historia hurbilaz, edota gazte batzuei lapurturiko bizitzaz dihardu eleberriak gupidarik gabe. Eta horren lekukotza ematera literatur pertsonaia andana agertzen zaigu.



Lazkano da pertsonaia nagusia, hark ezkonduko ditu iragana eta oraina, hark ezagutzea emango dizkigu hildakoak eta bizi dire-

Twist.
Harkaitz Cano.
Susa.
440 orrialde.
26 euro.

nak, batez ere, berak bere burua, bere egonezina emango digu ezagutzea, bera baita kontatzeko bizi-rik geratu dena, hildakoak berarekin bizi dituen eta gertatukoaren inguruan erantzunak baino galdera gehiago dituen. Soto eta Zeberio, hil zituztenean eta karez desagerrarazi, Lazkano haiekin hiltzen hasi zen, hantxe geratu baitziren elkarrekin konpartitzen zituzten antzerkizaletasuna, literatura eta etorkizun hobe baten sinesmena.

Antzerkia eta *performancea* muturreraino daroa Lazkanok bere identitate eraikuntzan, hildakoak eurekin bizi direlako edota bera ere haiekin hil zelako, eta deus ere argi ez duelako. Azkenean historia bera fikzioa edo errealtatea den askotan ez dakigulako. Eta batez ere, “pentsatu eta esaten ez diren gauzak esaten direnak baino askoz gehiago” direlako. Gauzak beste modu batera izan daitezkeelako. Lazkano izan zitekeelako eta ez Soto, 215. orrialdean Faulknerren liburua utzi, eta betiko atsedenerako bidea hartu zuena; izan ere, Sotoren orde ezzenatoki hartan, Lazkano ez egotearen arrazoi bakarra, gidatzeko karnetik ez edukitzea baitzen.

Artez, sentimenduz, hausnarketaz josiriko errelatoa da eta une bakar bat du helduleku, Soto eta Zeberioaren desagerketa eta heriotza. Espazioa, denbora eta pertsonaien etenik gabeko jauzi erauziak ez du galbidean jartzen kontaktaren joana, ur-jauzien indar zentrifugoaren antzeko hari narratibo ondo baino hobeto tinkatuak gidatzen du errelatoa nahi duen lekutik nahi duen denborara. Bizitzaren eta historiaren sentimenduen errailetara bidaiatzen du kontaktak, eta hori bikain harilkatzen du Canok, saminez, umorez eta paradoxez.



iRUÑAZARRA

TaBERNA • JaTeXea



Merkaderes kalea, 15 · 31001 IRUÑA (Nafarroa)
T 948 22 51 67 · info@irunazarra.org · www.irunazarra.org

CuadraBus

www.cuadrabus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxes: 945 892 215
info@cuadrabus.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Cadenas de odio.
Soziedad Alkoholika.
Autoekoizpena.
Iraupena: 44'16'.
12,5 euro.

Metal bortitzenarekin garai gogorretan

PASA dituzten garai latzen ostean indarberrituta ikusten ditut Gasteizko taldeko kideak; indarberrituta eta bizi ditugun garaietara ondo egokituta. Horretan zeresan handia dauka hastapenetatik garatu izan duten hardcore-thrash edo thrashcorea metaleroago bilakatu eta, bilakaera natural horren bitartez, belaunaldi gazteagoak ere erakarri izana. Lan oso bortitza da honakoa eta bere baitan eskola zaharreko thrash estiloa, industrial, metal

rapeatua eta erritmo bizi bezain indartsuak batzen ditu, ia arnasteko tarterik ere uzten ez dutenak. Eskerrak euskaraz abestutako *Gora goaz* baikorrak jai-giroko izaera duen, eta tarteka Juanen ahotsak kantak arindu egiten dituen. Bestalde, jasotako hitzak diskoaren diseinua bezain ilunak eta egiazkoak dira, oka egitekoak. Gogotsu eta indartsu datoz berriro!

www.soziedadalkoholika.com

Juan - Soziedad Alkoholika

«Gaur egungo talde oso gutxik hunkitzen naute»

Zuen hastapenetako hardcoretik zerbait faltan botatzen duzue?

Orduko zirkuitua eta bidean galdutako lagun eta taldeak; baita zorarena eta abentura ere. Hardcorea nire bizitza filosofia da orain ere, eta gehien entzuten dudana musika estiloa.

Armonika –ateak zabaldu zizkizuen– kantaren batean sartzeko asmorik ba al duzue?

Egitear daukagu. Armonika jotzea asko gustatzen zait, baina ikasten ataskatuta gelditu nintzen.

Barrio oscuro, Hipocresía santa eta Ningún respeto kantetan eskola zaharreko thrash estiloa landu duzue.

Garai hartakoak gara, estiloaren sorrera bizi izan genuen eta eragin digu. Orain ere talde horiek entzuten ditugu. Gaur egungo talde oso gutxik hunkitzen naute.



Soziedad Alkoholika taldea. Juan eskuinetik lehenbizikoa da.

Hitzen gaiak topikoak dira, baina gaurkotasan handia dute...

Gure hastapenetako diskoetako kanteak gaurkotasa dute. Eskubideen urratze ikaragarria bizitzen ari gara.

Cadenas kanta industrial da erabat.

Jimmyk elektronika industrial egiten zuen talde bat izan zuen. Soinu horren ezaugarri errepikakor eta apokaliptikoa gustatzen zaigu, elektronika, metala eta gitarra bortitzak nahasten dituzten taldeak.

Gora goaz, diskoko abesti positibo bakarra, euskaraz... Noizbehinka euskarazko kantaren bat egiten dugu: duen indar eta sonoritateak erakartzen gaitu eta bada modu bat gure jatorria aldarrikatzeko. Gainera, erakundeek zapalduetako hizkuntza da.

Diskoetxe propioa, independenteak, multinazionalak, orain autoekoizpena...

Denetatik probatu duzue.

Gure helburua beti izan da taldearen alderdi guztietan burujabe funtzionatzea; horregatik sortu genuen gure diskoetxea. Ez dugu inoren menpe egon nahi izaten. Gerora, Espainiako Estatutik kanpo diskoak argitaratzea edo banatzea ezinezkoa zitzagunez, beste diskoetxe batzuekin lanean hasi ginen. Eta orain autoekoizpena itzuli gara: gure diskoak argitaratu eta banatzaleei ematera. ■



Ezpalak

JON TORNER

LUPA dokumentalen mostra hilaren 5ean hasiko da



DONOSTIA-KO Guardetxean (Urgull mendian) eta Errenteriako Mikelazulo kultur elkartean egingo dira LUPA dokumentalen

mostrako proiektzioak, apirilaren 5etik 8ra bitartean. “Ekimen honen bitartez, publikoari zuzendutako dokumentalen proiektzioak eta dokumental munduko profesionalen topaketa eta mahai-inguruak batu nahi ditugu”, azaldu dute Mikelazulo, Banda Bat eta Zazpi t’erdi elkarteek. Dokumental egile euskaldunetz gain, nazioarteko sortzaileek ere parte hartuko dute mahai-inguru eta bestelakoetan.

Proiektzioak:

- Apirilak 5 (Donostia): *La casa del nazareno*, *Los hilos de Penélope*, *Hibernando*, *L'Equip Petit* eta *Dimanche a Brazzaville*.
 - Apirilak 6 (Errenteria): *Notas de lo efímero*, *Otra mirada*, *Ovejas azules*, *Radiografía de un autor de tebeos* eta *Los amores difíciles*.
 - Apirilak 7 (Errenteria): *Exodo in little Bordeaux*, *Electro Class* eta *Poética pública*. Plaza.
 - Apirilak 8 (Donostia): *Lanbroa* eta *Las afueras*.
- Informazio gehiago: www.lupadoc.com.

Sarako 29. Biltzarrera begira 5 liburu plazaratu ditu Maiatzek

APIRILAREN 9AN egingo da Sarako Idazleen Biltzarren 29. edizioa. Maiatz argitaletxeak azokara begirako bost liburu aurkeztu zituen atzo: *Medearen iratzartzea eta beste poemak* (Itxaro Borda), *Kezka bat gutxiago* (Urtzi Urkizu), *Galerna* (Piarres Trounaday Xaramendi), *Inifife* (Peio Jorajuria) eta *Hormatik hormaraino* (Eric Ditcharry). Sarako Idazleen Biltzarra 10:00etan hasiko da, eta 12:00etan egingo da ekitaldi nagusia: Ziburuko Jakintza elkarteak eta Pier Paul Berzaitz kantariak 2012ko Biltzarreko Sariak jasoko dituzte, kulturaren arloan egindako lanagatik.

Ignacio Zuloaga (Eibar, 1870 - Madril, 1945) margolariaren Zumaia (Gipuzkoa) museoak (www.ignaciozuloaga.com) berriz irekiko ditu ateak, artistaren biloba Rafael Suarez-Zuloagaren zuzendaritzapean. Zuloagaren senideek oinordetzaren banaketaren inguruan lortutako akordioak medio, Zumaia museoaren parte bat Segoviako (Espainia) Pedraza gaztelura eramango dute.

Eduardo Chillida eskultorea hil zenetik hamar urte bete direnean, bere izena daraman katedra izango du Alemaniako Frankfurteko Johann Wolfgang Goethe unibertsitateak, zehazki Artearen Historia Institutuan. Etxepare Institutuak bultzatu du ekimena eta bertako arduradunen hitzetan, “euskal arteari buruzko nazioarteko ikerketa akademikoa bultzatzeko” balioko du katedra honek.



● **Leire Salaberria** idazle eta ilustratzailea haur literatura mintzatu da **Beterriko Liburua** aldizkarian: «Beharbada, Euskal Herrian kultura bisuala falta zaigu, alegia, ikusten

ditugun gauza asko agian ez ditugu ulertzen, eta hori hezkuntzatik datorren arazo bat izan daiteke. Irudiak ikuste hori..., asko kostatzen zaigu oraindik. (...) liburu gehienak digitalak badira, paperean saldu nahi den liburu horrek zerbait berezia eskaini beharko dio irakurleari, balio erantsi bat, liburu hori etxean eduki nahi izan dezan, eta balio erantsi hori irudiak izan litezke. (...) oso jende gutxi erabiltzen du beltza umeentzat, baina, zergatik ez? Badirudi haurrekin beti kolore biziak erabili behar direla, baina hori ez dut oso ondo ulertzen. Pixkanaka jendea ohitura hori baztertzen ari dela uste dut, umeen jantzi-tan esaterako, lehen baino gehixeago ikusten da beltza, baina oraindik ere arraro egiten da beltzez jantzitako txiki bat ikustea».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Don Vito eta akolitoak

MARTXOAREN 15EAN 40 urte egin zituen Francis Ford Coppolaren *The Godfather* apartak, aitzakia ezin hobea mafia italoamerikarra –botere borroka, ustelkeria, familia, mendekua, negozioa– gai duen filma berrikus-teko. Azken finean, ezaguna zaigu istorioa: pelikula irekitzen duen ezkontzaren eszena luze eta gogoangarrian nola, ospakizun alaian eman ditugu egunak, eta alboko gela ilunean, don Vito eta akolitoak aritu dira azpijokoa, lokatzetan eroso. Sotilagoak dira egungoak, ez dituzte zaldi buruak uzten ohean, ez dute etsaia sokaz itotzen; nahiago dituzte neurrira sortutako legeak, mehatxuak eta txeke zuriak. Garaiotako Corleonek ez du Marlon Brandoren ahots urratuarekin hitz egiten, ahapeka adosten ditu eskupekoak, eta jokoa baino, adreilua, errauste plantak, hirigintza, espekulazioa ditu negozio-iturri. Haatik, familia zutabe garrantzitsua da oraindik, esleipenak eta goi-karguak banatzeko garaian.

Ikusi ditugu gurean funts-desbideratzeak –lapurre-tak, hizkera jatorrean–, irregulartasunak museo eta erakunde publikoetan, golf zelai eta lursailen saleros-

keta zalantzarriak, epaile eta agintarien prebarikazioak, opari festak. Baina *The Godfather*-ko mafiosoen dotorezia eta estiloa falta zaie, gaurkoek trakets jotzen dute,

egun argiz eta lotsa-gabe. Fikziozko mafiak bere alde du klasiko bihurtu den Nino Rotaren musika-banda zirraragarria, ikuslea harrapatzeko gai den tentsio dramatikoak, Coppolak erabilitako plano berritzaileak, pelikula guztia zipriz-tintzen duen giro beltza, Marlon Brando eta Al Pacinoren interpretazio bikainak, buruan iltzatuta geratzen diren esaldiz osatutako gidoia... “Aitak edozein gizon boteretsuren antzera jotzen du, senatari edo presidente baten antzera”. “Ez izan inozoa, Michael, senatariek eta presidenteek ez dute jendea hiltzen”. Isilunea. “Zein da hemen inozoa?”. Inozoenak gu, ospakizun alaia betiko izango zela sinesteagatik.



Kalean da apirileko



aizu!

- Autodefentsa feministan sakontzen
- Bizi Toki, eskolari alternatiba
- Ipuinak etxe giroan
- Nafarroako antzerki eskola, iraun nahian
- Patri Pinedo arin-arin


Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) 29 €

aizunet.org

Ihesi

GOTZON BARANDIARAN ARTEAGA

Argazkiak: Iñigo Azkona



Euskal Herria ezagutuz:
Larrabetzu (Bizkaia)

Askatasuna erdigune

Sestaoko ikastetxe batean izan ginen Mikel Zarateren *Haurgintza minetan* liburua berbagai hartuta. Lezamako idazleak liburuko iratxo narratzailearen ahotik salatzen zuen minetako batek erasan gintuen gu ere. Zelan liteke gure gazteek bizitokitik ordu erdira ere ez dauden herriak non dauden ez jakitea? Sestaoko gazte gehienak Larrabetzun egundo egon ez diren eran dute ikusi gabea larrabetzukoek Labe Garaien herria.

BIDAIA LABURREGIETARAKO hegaldiak behar ditugu. Urtero Santiagorainoko bidea dagiten milaka lagunek Gernikatik egin ohi digute bisita, Morga igarota, Bizkargi ezker aldean utzita. Bizkargi, altxamendu faxistaren memoriagarri, burnizko gerrikoaren zulo, basoen ustiaketak itsustu-

tako tontorra, urteetan Morga, Zorrotza zein Larrabetzuko udalen axolagabekeriak zarpaildutakoa. Ederra da Bizkargi maiatzaren 3an, ederragoa ondorengo domekaz. Memoria historikoa ezinbesteko aldarrikatzen dugunotan, historiak berak egin du atzera txikitxutekoak gogoratu nahi-

rik. Dignidad y Justicia deritzon elkarte parapolizialak 2011ko Bizkargi Eguna galarazteko eskatuta dozena polizia zaindaria izan genituen, behinola ikurrina haizatzea kolpeka debekatzen zuten txapelokerren antzera. Agurgarria gure Bizkargi, burugorria, gutxienez.

Andra Mari kalea.





Ezkerrean, monolito frankista Gaztelumendin, Euskal Herrian geratzen direnetatik handienetakoa. Eskuman, Eleizalde auzoa; atzeko aldean ikusi daiteke San Emeteri eta San Zeledonio eliza.

Larrabetzuko erdigunerakoa Barrenetxe auzotik zein Astorekatik egin liteke. Astorekatik eginez gero, Zarandoa auzotik Gaztelumendira iritsiko gara. Bertan dago Euskal Herrian dagoen Franco zaleen ikur handienetakoa, gurutze erakoa, eraisten ahalegindu garen arren zutik dirauena. Bertan daude lubakiak, bertan gerriko hautsiaren aztarrenak, herritar talde batek, ekain osoan zehar antolatu dituen hitzaldi, ibilaldi, irteera, mahai-inguru, dokumental, musika emanaldietan azaleratuko dituenak.

Foruak zintatu zituzteneko mahaia

Barrenetxetik behera Eleizalden har liteke atsedea, Eliren tabernan, sasoi bateko lauetatik zabalik dagoen bakarrean. Bide-seinaleetan Goikoellexea deritzon auzoan San Emeteri eta San Zeledonio eliza dago, portale zabal luzekoa. Arrastion umeok, badakizue zein den Espainiako errege-erregina katolikoen Gernikara bidean Foruekiko oniritzia zintatzeko erabili zuten mahaia? Ping-pong, ping-pong, ping-pong guk, bai, hauxe bera. Gerora jakin dugu euriari elurrari hotzari burlezar aritzeko gure olgeta-lekua gida turistikoetan erakusten zutela, mahai zein portalegatik ez eze, barruan Bizkaiko erretaula hispaniar-flandestar aipagarrienetarik ere.

Auzoko jaiak ekainaren 13an, abuztuaren 30, 31 eta apirilaren 1ean antolatzen ditugu Intxurreta jai-batzordekook. San Antonioak

eta Emeteriek. Gaixotasun larria pairatzeagatik kartzelan ustelazten duten *Kurrillok* arrazoiz egingo digu gedar, ateo agnostiko fedebakook zer dela-eta gordetzen ditugun santuen izenak jai paganootarako. Gure amak akordura ekartzen duenez, auzoko baserrietako adin guztietako umeak biltzen ziren auzoko eskolan, espainola ikasita espainol zintzo bihurtzeko. Egun, era guztietako otorduak prestatzeko udal-txokoa da, larrabetzuar baten izenean edozeinek alokatu lezakeena.

Urian barrena

Kilometro eskasera dago Uria. Bertoko industriaren ikurra dugun zerrategiaren ostean Angulerik jiraraziko digu burua. Baserri izan gura zuen jauregia, liburutegi, ordenadore-gela, kultur etxe eraberrituak era guztietako ikastaro batzar erakusketak aterpetzen ditu. Literaturazaleok, hileroko hirugarren ostegunetan, literaturaz berba egitera gonbidatzen dugu euskal idazle bat Angulerira. Orain dela hiru urtetik ekaineko lehen asteburuan, Literaturia euskal literaturaren jardunaldietan, dozenaka libururen berri jaso lezake Angulerira datorrenak. Harria eta egurra entzuten ikasteko proposak direla diote soinu-teknikariek. Bai, erantzungo lieke idazleak.

Irigarritasun irizpide guztien aurkakoak diren mailadi oztupoak igarota Irusta tabernan geldialdia egiten ez duenak ez daki zer den hau. Mororen taberna txikiteoaren

hasiera amaiera bakoa da. Esaera zahar bilakatu zaigu jada herritarroi, Moronera badakizu zein ordutan sartzen zaren, noiz irtengo zaren, oster, ez. Herriko plazatik Etorki, Batzokia, Gazteleku, Aretxabala, Politena, Foteri tabernek diosala dagie Andra Mari kaleari. Eskola-gunetik landa, inguruko tabernen abarora biltzen gara larrabetzuarrok, are gehiago saihesbidea egin aurretik Mungia-Gernika aldera joateko bakarra zen herriko kale nagusia oinezkoentzat babestu genuenetik.

Larrabetzu munduan ezaguna izan zenekoa

Askatasunaren plazaren eta Andra Mari kalearen artean egiten diren gure jai ospakizun festa bozkarioitsuak. Inposatutako egoera ekonomiko honek kalerako joera asko urratu badu ere, arnas gune nagusia izaten jarraitzen du. Ez diogu elkarri hitzordua zehazteko deitu beharrik, kalean beti dago bateren bat. Foteri tabernaren aurrean Hori Bai gaztetxea eta Andra Mari eliza haserre. *Zamorako apaiz-kartzela. Eliza eta Estatuaren presondegia (1968-1976)* liburuaren aurkezpenean Xabier Amurizak deiadar egin zigun gogorarazteko Larrabetzu munduan ezaguna izan zela egun batzuez bederen.

1968 ekainaren 7an Guardia Zibilak Txabi Etxebarrieta ETako kidea hil zuen, eta zenbait apaizek haren aldeko mezak ematea erabaki zuten. Gobernadore zibilaren galazo agin-

dua betearaztera etorri ziren Guardia Zibilak Larrabetzura, ordukoa gogoan dutenen esanetan, egundo herrian ikusitako Guardia Zibil kopururik handiena. Txapelokerrek, orduan herriko apaiza zen Josu Naberanek Etxebarrietaren aldeko meza emateko asmoa zuen jakitun zirenez, kale nagusian dagoen Andramariko elizara hurreratzea ere eragotzi zieten herritarrei. Nabereanek ez zuen etsitzeko ezelango asmorik, oster, goiz edo berandu, Txabiren aldeko meza emango zuen. Klean hasita plazaraino, eten bakoak izan ei manifestazio, korrikaldi, harrikada, aldarriak.

Josu Naberan apaizarena lege herritarren tinkotasunak orduko hedabide guztietan izan zuen oihartzuna, bertokoetan nahiz kanpokoetan. Amurizak narraziotu zigun eran, herria munduko zilborra izan zen aste batez. To, ostia, galanta gainera, ez orduko fededunei, ez bada, gaurko fedegabekooi. Gaztetxean geunden entzuleetako 40 urtetik beherakoak atoa konturatu ginen, zaharragoek aspaldi zekiten. Lehen intsumisoak, desobedientzia zibilaren lehen borrokalariak sotanapekoak izan ziren, gaztetxeari berari atxikita dagoen elizako pulpitutik iraultzailerik iraultzaileen pare. Parisek bizitako maiatza ekainera atzeratu bide zen Euskal Herrian bezala Larrabetzun. Ez zioten barkatuko Josu Naberani ausardia hura. Zamorara eroan zuten preso beste hogeitaka apaiz gorrirekin batera.

Zamoran izandako apaizek kartzelaldi sasoiko aurre zein osteak kontatu zizkiguten gaztetxe hartan bertan eman zuen hitzaldia Gabriel Arestik, Hori Bai gaztetxean, Andra Mari 23an, 1972an. Literatura eliza gaztetxea. Kultura tradizioa bizia. Halan azal nezake gure herria, halan bizi dudalako.

600 urtean aldatu ez zen herria


Historiazale turismogidamenpekoak asetzeko, pertsonak Larrabetzun bizi zirela adierazten duten lehen aztarnak erromatarren garaioak direla, Bizkaiko Don Juan Infanteak 1376an eman ziola hiri —larrabetzuarrontzat Uri— izaera, orduetik XX. mendeko azken 25 urteetara

Gabriel Arestik larrabetzuarrei

Gabriel Arestik, nork bestela, Josu Naberan eta beste hainbat apaizen kartzelaratzeara eragin zuten gertakariei buruzko samina agertu zigun, larrabetzuarrei zuzenduta munduko gainontzekoei:

Larrabetzun 1972-1-1

Larrabetzuko
hiritar
eta
lagunak:
Gaur,
Urtarril honetan,
hitz aspertu pare bat
erran behar
dautzuet
ene euskara
gaiztoan,
inork entenitzen omen ez duen
hizkuntza
hain difizil
honetan
erradazue,
larrabetzuar,
hiritar,
lagunak,
ez ahal nauzu
entenitzen?
Ez ahal da euskara hau
euskara bat,
euskara garbi eta klaro
bat?
Niri,
oraingo,
urtarril honetarako,
lurretara erori
zaizkit
belarriak eta
potroak ere.
Ez dakit nik
orain
zer
naizen,
Euskal Herriko gizon oso bat ala
hermafrodita bat,
ez dakit nik
zer den
Euskal Herria,
herri sufritu bat
ala inoren enorantziatikan
sortutako
espiritu
santu
dibinal



eta
estupido
bat,
gauza bat dakit bakarrik:
zer sufritu duen
herri honen gatik
Agustin honek:
Ibarrolatar anaia biok
asko badute sufritzen
euskaldunari odol urdina
nola ez zaio gorritzen?
Hau bada bake ederra
betor agudo gerra,
libre baikaitu jarritzen.
Nola andreak herriak ere
neketan dira erditzen.
Zer sufritzen duten
hoiek,
nik eta zuek hain ongi
ezagutzen ditugunek:
Naberan Naberan
eta
Naberan Naberan
eta
Naberan Naberan
eta
Amuritza
eta
Mario, Itziar, Xabier...
eta
hemendik hilabete batzuetara
zer sufrituko
dudan
nik ere,
Gabriel honek,
Euzkadiko
poeta
madarikatu
honek...



Askatasunaren plaza.

arte herria eta biztanle kopurua ez direla batera aldatu, edo, batez ere, azken 700 urteetan herriko ekonomiaren motor burdinolak izan zirela, burdinak aberastu gaituela ekar dezakegu akordura.

Baten batek gehiago jakin gura badu Sabin Arana, Euskalduna ontziolako langile ohi eta Larrabetzuko historiagilea, herriko kaleetan txakolinetan edo herriko eskolako gelaren batean gure txikienei Larrabetzu ezagutarazten aurkituko du, galderak erantzuten abegikor beti. Sabin bera izan zen, 1965ean, herrikide batzuekin batera, Hori Bai gazte elkarte sortu zuenetako bat. Bera izan zen orduko abadearengana EGiren izenean hurreratuta, egungo gaztetxea den XIX. mendeko elizari atxikitako eraikina erabiltzeko baimena eskatu zutenetako bat. Harekin bat egin

bazuen ere, Hori Bai ez da, sortzez, 80ko hamarkadako punk mugimenduaren eztanda itzel hartatik eratorritako gaztetxea.

Hori Bai, Kukubiltxo... eta beste

Sabinek dokumentatu lege herri-tar askok goraipatzen dutenez, Hori Bai udal, eskola, dantza-taldearen aterpe eta beste hainbat erabileratarako egoitza izan da. Larrabetzuarrok Hori Bai geure sentitzeak babestu du Kukutzaren antzera amaitzetik. Antzera maitasuna jaso du, herritarrongandik, 1977an sortu zutenetik, herriko beste enbaxadore garrantzitsuena den Kukubiltxo antzerki taldeak. Herriko kultura ondare historikoen katalogoa dagigunean, Errebale 20ko egoitzari babes neurri bereziak esleitu beharko genizkioke, babestutako antzezgune bilakatu,

irudimenaren biosfera. Zenbaezinak dira 35 urteotan kukubiltxotarrrek herrikideei eskainitako istorio miragarri mundu paralelo kantu-kontuak.

Hori Bai eta Kukubiltxori, azken urteotan, herria bizi-bizirik mantentzen gura duten hainbat gehitu zaizkie. Ez gara 2.000 lagun, ez dugu polizia, lau egunetik behin era bateko zein besteko hitzorduen berri izaten dugu kaleko afixetan lege www.larrabetzutik.org egunkari digitalean. Garenok eta eguneroan palazio elizak bezain paisaia monumentu zitzaizkidan Txomin Mutiko, amuma Miren, Markel, Karmani, Luzio, Txetxu, Txus guztiak. Nik ere maite ditut maite gure bazterrak, nik ere bizi dituzten pertsonei eskerrak. ■



ERAKUSKETA

Denbora eta premia (Guernica)

José Ramón Amondarain

> 02.09.2012

Pablo Picassoren *Guernica* margolan enblematikoaren egikera prozesuari buruzko saiakera, eta haren ikono balioaren eta gaur egun duen oihartzunaren azterketa.

Argibide gehiago:

www.artium.org



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Denbora-pasak


ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak



Kike Amonarizen umorea

Pediatrari galdezka




Irratiko programa batean honelaxe galdetu zioten duela gutxi pediatria ezagun bati:

– Eta zuretzat, zer da zailena haur gaixo bat artatzen ari zarenean?

Eta pediatriaren erantzuna:

– Gurasoak isilaraztea!

Soluzioa





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 Usurbil (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Itsas trikuen arantzak, zementu hobia egiteko eredu

ITSAS TRIKUEN arantzen osagai nagusia (%99) kaltzita da, oso material gogorra eta aldi berean hauskorra. Trikuen arantzak, baina, gogorrak izanik malgutasun nahikoa dute, kolpeak jasateko modukoa alegia.



Constanzako Unibertsitateko (Alemania) Helmut Coelfen ikerlariak, trikuen arantzetan dagoen kaltzitzen egitura aztertu ondoren, ikusi du kaltzita kristalak kare-multzo batean kokatuta daudela, adreiluak horman bezala, eta kristalen artean proteinak ere badaudela. Dioenez, txundigarria da naturak material hauskor bat erresistentzia handiko material nola bihurtzen duen ikustea.

Ikerketaren xehetasunak ez dituzte argitara eman, nazioarteko bi enpresa handirekin hitzarmena sinatu baitute porlan gogorrak bezain malguak sortzeko asmoz.



Konposta, ongarri ez-organikoen ordeko

Burgosko (Espainia) probintzian nekazaritza-lur askok oso elementu organiko gutxi dute, urtetan ongarri ez-organikoak erabili izanagatik. Burgosko Unibertsitateko talde batek adierazi du lur horien egoera konpostaren bidez alda daitekeela.

<http://ttiki.com/36145> (Gaztelaniaz)

Galaxia nanoen arteko talka behatu dute lehenbiziko aldiz

Alemaniko eta AEBetako ikerlariek osatutako talde batek lehen aldiz ikusi du galaxia nano bat nanoagoa den beste galaxia bat "jaten". Gertakari hori ezaguna zen, baina hau izan da behatu ahal izan den lehenbiziko aldiz.

<http://ttiki.com/36146> (Gaztelaniaz)

Eguzki eta haize energia metatzeko bide berriak

EGUZKIA ETA HAIZEA energi iturri garbiak dira, baina intermitenteak. Beti ez da nahikoa haize izaten errotak higiarazteko, eta eguzkia batzuetan lainoek estaltzen dute. Ikerketa asko eta askoren helburua energia-horniketa konstantea lortzea da.

MIT Institutuan (AEB) teknologia garatu dute energia sobera sortzen denean hura metatzeko. Horrela, energiarik sortzen ez denean ere horniketa egiten jarraitu ahal izango da. Nola? Tenperatura handiko eta osagai likidozko baterien bidez.

Hiru dira likidoak, dentsitate desberdinekoak; likidoetako bik polo positiboa eta negatiboa osatzen dituzte eta besteak elektrolitoarena egiten du. Hiru likidoak magnesioz, antimonioz eta magnesio kloruroz osaturik daude, eta 700°C-tan egiten dute lan.

Badirudi sistema hori energia kantitate handia metatzeko gai dela; dagoeneko enpresa ugari agertu dute interesa.



Eremu magnetikoentzat "ikusezina" den objektua sortu dute

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko eta Eslovakiako Zientzia Akademiako ikerlariek eremu magnetikoentzat "ikusezina" den objektua egin dute: barrutik hutsik dagoen zilindroa. Aleazio berezi bati esker, uhin elektromagnetikoak desbideratu egiten dira zilindrora iristean.

<http://ttiki.com/36147> (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Txirriak

DANTZA-LAGUNAK DIRA orbela eta haizea. Ekinozio sasoi hau da hostoa galtzen dutenen azken dantzak ikusteko aukera. Zimelduagatik zuhaitzetik erori gabe negu osoa iraun duten hosto martzeszenteak orain jausiko dira. Gurean pagoa, ametza, xarma eta erka-metza dira joera hori nabarmenen erakusten dutenak.

Izerdi berriaren kemenak erantziko du hosto zimelezko berokia eta kimuz, lorez eta hosto gaztez jantziko. Oraingoxeko izerdialdian dagoenerako ikusi dugunagatik, aurten loraldi bikainak izango ditugulakoan nago. Mimosak (*Acacia dealbata*), sahasak (*Salix* sp.), kameliak (*Camellia* sp.), magnoliak (*Magnolia × soulangeana*, *Magnolia stellata*...), irasagar-rondo japoniarrak (*Chaenomeles* sp.), lertxunak (*Populus tremula*) eta abar sekulako indarrean loratu dira; eguraldia ere halakoa izan dute.

Zuhaitzak eta zuhaixkak bezala, belarrak eta landare txikiak ere garatuko dira, garak eta loreak emango dituzte. Belar minak, *Artemisia vulgaris*, adibidez. Asiako ekialdeko landareen jakintza gure-

ganatu zuen Kaempferrek bertako osasungintzan deigarri egin zitzaizkion bi teknikaren berri ere ekarri zuen: akupuntura eta moxibustioa.

Moxibustioa moxa, belar minaren sustrai ehoa, erretzea da. Zuzenean azalaren gainean, akupuntura orratzei itsatsia edo berarekin egindako txirri edo zigarro tankerakoak jarrita erretzea. Azaleko gune jakinak berotu egiten dira eta landarearen esentziak erantsi. Teknika oso landuak dituzte eta ikaragarrizko fedea diote oraindik ere.

Hemen ere oso hedatua da belar mina. Arioa, erle-belarra, artemisa min eta izen gehiago ere badu. Erabilbide ugari eman diogu: tabako gisa errea, hosto-berri eta kimuak jaki eta ezkeraihenaren aurretik (*Humulus lupulus*) garagardoa mikazteko gai, sendabelar ezaguna... Emakumearen sendagai izan da, batik bat. Proventzan hala diote: "Emakumeak balu belar minaren indarraren berri, manta-reen eramango luke beti".



Belar mina, *Artemisia vulgaris*.



1.288

Ameriketako Estatu Batuetan, handietan handitan, nekazaritza ekoizpen batek supermerkatu iristeko egin behar duen kilometro kopurua 1.288 da, batez beste. Geurean zenbat ote?

%1,9

AEBTan bertan, 1960-2010 tartean nekazaritzako zein produkturen mozkina hazi den gehien ikertu dute. Alpapa, garia, soja eta artoa alderatuta, azken hori nagusi: etekina %1,9 igo da urtero, %0,8 luzernarena, %1,5 gariarena eta sojarena %1,1.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



EKILORE
Lorezaintza eta loradenda

☎ 943 795 546

Elorregi bidea · Arrasate (Gipuzkoa)

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Vasa 1628: Titanic suediarra

OZEANO ATLANTIKOA, 1912KO APIRILAREN 14A. RMS Titanic, ordura arteko ontzirik handiena eta luxuzkoena, hondoratu egin zen. Garaiko teknologia berrienak erabili zituzten hura eraikitzeke, eta prentsak “hondoraezina” zela esan zuen. 300 urte lehenago, itsasoa mendean zutela sinetsita, suediarrek ere ontzi “suntsiezina” eraiki zuten.

XVII. mende hasieran, Suedia Baltikoko potentzia nagusia bihurtu zen, baina 1618an, Hogeita Hamar

Urteko Gerra hasi zenean, itsasoaren kontrola arriskuan ikusi zuten suediarrek, eta Gustavo II.a Adolfo erregeak inoizko gerra makinarik beldurgarriena eraikitzeke agindu zuen. 1626an, mila haritzetik gora bota ondoren, Vasa eraikitzen hasi ziren. Eta 1628ko udan gerraontzi ikusgarria prest zegoen. 69 metroko luzera zuen, 1.275 metro koa dro haize oihal, eta 64 kanoi. Tripulazioa 145 pertsonak osatzen zuten, baina beste 300 soldaduren tzako tokia ere bazuen. Gainera 700dik gora eskultura zituen, egurrean zizelkatuta eta kolore biziz margotuta.

Abuztuaren 10ean festa giroak hartu zuen Stockholm. Herritarrak itsasertzean bildu ziren Vasa lehenengoz nola itsasoratzen zen ikusteko. Itsasoa



Vasa gerraontzi suediarra 1628an hondoratu zen, baina oso ondo kontserbatu zen, eta egun museo batean dago ikusgai.

bare zegoen eta brisa leuna besterik ez zebilen. Baina Suediako erregeak, kanoi lerro bat nahikoa ez, eta beste lerro bat egiteko agindu zuen. Ondorioz, ontziaren astuntasun zentrotroa igo behar izan zuten. Ontzia altuegia zen, zabalera kontuan hartuta. Horrenbestez, egun hartako haizekirria nahikoa izan zen itsasontzia makurtzeko. Ura beheko kanoi zuloetan sartzen hasi zen, eta ontzia berehala ondoratu zen.

Vasaren estreinaldiarekin alderatuta, Titanicen lehen eta azken bidaia hura arrakastatzat jo genezake ia. Titanicek lau egun egin zituen itsasoan; Vasa ez zen milia nautiko bakarra ere egiteko gai izan. Bietan, itsasoaren eta giza anitzioaren arteko borroka lehenak irabazi zuen. Baina naturaren irakaspenak ez ziren hor amaitu.

Baltikoko gatz kontzentrazio bereziak eta Stockholmeko portuko uren kutsadurak eraginda, egurra jaten duten mikroorganismoek ezin izan dute ingurune horretan biziraun. Hala, 333 urtez urpean egon ondoren, 1961n Vasa egoera ezin hobean lehorreratu zuten, denboraren makina geratu bailitzan. Eta museo bat egin zuten arrasto ederrak erakusteko. Edo porrota ez ahanzteko.



Arrastoak

Etxebizitza erromatarra Irungo Bixeraren azpian

BIXERA izenez ezaguna zen Irungo eraikina (argazkian) berriki eraitsi dute, eta haren azpian egindako indusketa arkeologikoek fruitua eman dute dagoeneko. Iragan astean, Oiasso museoko zuzendari Mertxe Urteagak eta Irungo Herri-lan zinegotzi Cristina Labordak eman

zuten aurkikuntzen berri. Erromatar garaiko etxebizitza baten sotoa aurkitu dute, eta bertan hainbat zeramika zati, txanpon bat eta argizulo bat. Induskatutako espazioa hiru metro luze eta 1,5 metro zabal da, eta oraingoz 80 zentimetroko sakonerara iritsi dira.



IRUNGO UDALA

Pernando Barrena

«Aldebakartasunean datza ezker abertzalearen sendotasuna»

Berriozar, 1965. Ezker abertzaleko kidea. 2007an, Batasuneko kide zela, poliziak atxilotu eta bi urte eman zituen espetxean. Kautelazko neurripean dago, 62.000 euroko fidantza ordaindu ondoren. Astero joan behar du epaitegira. Epailearen baimena behar du Estatutik ateratzeko.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco



Espetxetik atera ondoren, politikan aritzeko debekua jarri zizuten.

Bai, horrela izan zen, baina abokatuak helegitea jarri zuten eta epaileak debekuak ez zuela norbanakoaren oinarritzko eskubideetan murrizketa izaterik ebatzi zuen. Alderdi ilegal [Batasuna] baten izenean politika egitea debekatu zidaten. Ez badizute ezer esaten, ba al duzu alderdi ilegal baten izenean politika egiterik edo? Zer zentzugabekeria, ezta?

Aieteko Adierazpena hizpide hartu nahi dut solasaren abiapuntuan, alabaina, ezin dut Aljeria, Lizarra-Garazi edota Loiolako negoziazio saioetan izan ziren aukerak aipatzeko utzi. Egungo aukera ordukoak baino egoiago al da?

Negoiazio saio bakoitzak testuinguru politiko orokorra eta norberaren etxeari begirakoa ditu berekin. Horietan guztietan bestelako faktoreak izaten dira: zure arerio politikoaren unean uneko testuinguru politikoa eta zure etxean arerioaren

baldintzei aurre egiteko dagoen heldutasun maila. Zentzu horretan ezker abertzaleak mutur-muturreko egoeratan jokatu du, bi testuinguru horien baitan. Eta azpimarratu nahi dut: ez duzu bakarrik kanpoko faktoreek jartzen dituzten mugen arabera jokatzeko, barne faktoreen mugarrien baitan ere jokatzeko duzu. Hiru saio horietan hori gertatu da. Eta niri ez zait gustatzen pentsatzea, hau edo beste egin izan bage-nu, beharbada...

Une honetan zabaldu den giro politiko sozial berria iraganeko faktore eta zirkunstantzia horien guztien ondorioa da. Ezker abertzaleak eman dituen pausoak eta ondu duen eskaintza politikoaren ezaugarriak, horiek guztiek, zerikusi zuzena daukate iraganeko esperientzia horiekin guztiekin. Loiolako esperientziaren ondoren, ikaspenak eta autokritika egin genituen publikoki, eta egungo hausnarketan eragina izan dute. Areago esango nuke: ezker abertza-



"Alderdien Legeak, gure gustuko ez denak, exijitzen digu hainbat puntu betetzea eta guk hori egin dugu. Guk ariketa hori egin bagenuen, presoek ere ariketa hori egitea ez dago inondik ezker abertzaleak eta ETAk ere hartutako erabakiekin kontraesanearan".

lea azken hiru urte hauetan gartzeten ari den filosofiak eta apostu politikoak Arjeleko prozesuan egin ziren hainbat hausnarketan ere oinarria dute.

Aieteko Adierazpenaren (iazko urriaren 17koan ezagutarazi zen) lehen puntua baino ez da gauzatu. ETari egin zitzaion eskaera, hain zuzen ere. Zer "balantze" egiten duzu uneon?

Oraindik goiz samar da "balantze" bat egiteko. Nik antsietate puntu bat izatea onartzen dut, ezker abertzaleak dena jarri baitu mahai gainean, beraz, logikoa da aurrerapean ahalik eta lasterren ikusi nahi izatea. Areago, hainbat jendeak behar larria du, presoek esaterako, giza baldintza prekarioetan daudelako. Ulegarria da beraz. Balantzea ez, baina kontu honen "saldoa" begiratzu gero, urritik hona zer gertatu den eta prozesua nola doan ikusita, nire ikuspegia positiboa da.

Orainari eta etorkizunari begira kezkatuta daudenei, modu onez diot, kezka zentzu jatorrean ulertuta, atzera begiratzeko eskatuko nieke, nondik gatozen eta nora goazen begiratu eta kenketa egiteko. Aurrerapena begibistakoa da.

Martxoan ezker abertzaleak Konponbide haizea dabil adierazpena egin du Donostiako Kursaallean. Autokritika egin duzue, ETaren biktimak direla-eta. Batzuen iritziz ordea, ez da aski.

Ezker abertzaleak egin duen autokritika sana eta funtsezkoa da, etorkizunean akats berdinak ez errepikatzeke eta gure estrategia emankorra izan dadin. Inork ez du autokritika egiten inork kontentatzeko, eta ezker abertzaleak beste eragile politikoak kontentatzeko are gutxiago.

Zuek hau edo beste esanda ere, ez dela aski esango dizuete, ETaren autokritika falta delako. Iraganaren zama darama ezker abertzaleak.

Hori horrela da. Baina, biktimetikiko aferari dagokionean, adibidez, ardura maila ezberdinak daude. Biktimak alde guztietan daude, eta ardura mailak ere bai. ETak baditu ardurak, biktimak sortu dituen erakundea baita, eta berak hartu behar ko ditu bere erabakiak. Ezker abertzaleak, nahiz eta ardura zuzena ez izan, bere hausnarketa egin du. Kur-saallean esan genuen bezala, gure eremu politikoko ez diren pertsonekiko ez gara oso fin aritu, ez diogu besteen sufrimenduari nahiko arreta eskaini. Dena den, batzuentzat ez da inoiz nahikoa izango hau esan arte: arrazoi duzu, irabazi duzu eta hemen daukazu nire etxeko giltzak. Horientzat ez da nahikoa baina guretzat bai. Guretzat, sufrimenduari erreparazioa eman ahal izatea, aitortza ematea, eta neurri berean sufritutako guztien egia eza-gutzea ez da bakarrik giza jarrerara agertzea. Hainbestetan aipatzen den elkarbizitza eta giro berria sortu

ahal izateko, guztion arteko ariketa kolektiboa landu beharko dugu herri honetan.

Prozesu honetan aldebakartasunaren bidea hartu duzue. Zein dira abantailak, zein desabantailak?

Abantailak oso nabariak dira. Aldebakartasuna oso kontzeptu funtsezkoa da —ados egotea besterik da— ezker abertzalea egiten ari dena ulertzeko. Ezker abertzaleak bidez bide ondorioztatu du, herri honek ez daukala aurrean elkarrizketa klabea aritu nahi duen Estatu bat, espainiarra edo frantziarra, kasu. Auzia elkarrizketaren bidez konpondu nahi ez duten bitartean, bi aukera daukazu: zain egon edo haien esperoan egon gabe urratsak ematen hastea. Aldebakarreko urratsak egoera berriak sortzen dituzte, eragile politiko guztiak mugiarazten dituzte, gobernuena barne. Espazioak murrizten edo handitzen dituzun neurrian, arerioek birkokatu behar dute, eta hori gertatzen ari da azken bi urteetan. Aldebikotasunaren aldean abantailak daude, baina desabantailak ere bai. Aldebiko eskeman kontratua gizaratearen aurrean ematen da. Konpromisoak hartzen dira, bi aldeek sinatu dute kontratua. Aldebakarrekoak ez dauka hori, baina tempo politikoak zuk kontrolatzen dituzu, baita zure konpromisoak eta edukiak nola bete ere. Beraz, aldebakartasunean datza ezker abertzalearen sendotasunaren apostua.

Euskal prozesuaren eta auziaren zioz Madrilgo deklarazioa onartu da Espainiako Kongresuan. Nola ikusten duzu PPren Gobernuak?

Madrilgo deklarazioa UPyDren inizatibari jarritako dike bezala saldu nahi izan dute batzuek. Testuaren literaltasuna oso txarra baita, ez du zerikusirik Euskal Herrian sortu den giro soziopolitikoarekin. Adierazpenak irabazle/galtzaile filosofia errepikatzen du. Inork uste badu hori oinarri hartuta ezer egin daitekeenik, bada, oso oker dabil. Gainera, larriena ez da hori, baizik eta batzuek testu hori Gasteizko Legebiltzarrean ez dakit zer ponentziaren oinarritzat hartu nahi dutela. Larritasuna areagotu da beraz.

Nola baloratzen duzu Lopez lehendakariaren Bizikidetzarako Ponentziaren inguruan gertatua?

Lehenik eta behin, ponentziak salbuespenezko egoera politikoarekin bukatzea izan behar du helburu. Ponentziaren ebazpena auzi politiko bideratzeko eta dinamika elkarriketatzailea sustatzeko bada, ongi, baina Gasteizko Legebiltzarrean, ezker abertzalea hor ez dagoenean, foro bat sortu nahi badute, gutaz hitz egiteko baina gu egon gabe, ez dauka zentzurik. Ponentzia ekimen eragin-korra izatea nahi bada, sortu dezagun herri honetako eragile politiko guztiak presente egon daitezkeen toki bat. Ponentziak, ezker abertzalearen eskusioan oinarritzen bada, huts egingo du, Espainiako Kongresuko Deklarazioaren testua baitu abiapuntu —ez da hori esan, baina helburua hori da— eta bitartekoak ez daude helburuen norabidean. Guk ez dugu inongo forotan parte hartuko ez bada berdintasunean oinarrituta eta agenda ireki batekin.

Aralarren jarrera nola baloratu duzu?

Galdera zein da, Aralarren jokabidea edo Aintzane Ezenarrorena? Nik dakidanez, Aralarrek argi eta garbi esan du ez duela parte hartuko ezker abertzalea kanpo utziko duen inongo iniziatiban.

EAJk hartzen dituen erabakiekiko, berriz, iraganean baina lasaia goa ari da ezker abertzalea, antza.

Bai. Iraganeko prozesuetan EAJrekiko dependentzia moduko bat izan dugula ondorioztatu dugu gure hausnarketan. EAJ non eta nola kokatzen zen ardura zigun, beste arerioekin zituen itunetan erreparatzen genituen. Aldebakartasunak abantaila hori eman digu, gure estrategia ez da EAJren edo beste inoren politikaren arabera. Horregatik EAJ kezkatu samar dago aldi honetan, besteak beste, bere helburua Ajuria Eneara bueltatzea delako. Kalkulagailuaren zenbakiak ez dira lehen bezain oparoak, ezker abertzalea izan baitaiteke lehen indarra, botoetan ez, baina bai ordezkartzen.

Ezker abertzaleak amnistia ontzat ematen du egun. Garai batean ez zen

nahikoa. Amnistiak ekar dezake gatazka politikoaren konponketa?

Ezker abertzaleak beti defendatu du amnistia kontzeptua, baina amnistia ez dela bakarrik presoak kalera ateratzea ulertuta. Hau da, presoak askatu ondoren, askatasunik gabe utzi zituzten arrazoi politikoei heldu behar zaiela ondoko prozesu politiko batean ulertuta. Eta bide hori urratzea posible da, baldin eta prozesu integral batez ari bagara. Prozesu integralak ez du soilik kontuan hartu behar biolentziarekin edo ETArekin amaitzea, alde politikoak ere garrantzia dauka eta horri ere konponbidea eman behar zaiola aurreikusi behar du.

"Aralarrek argi esan du ez duela parte hartuko ezker abertzalea kanpo utziko duen inongo iniziatiban"

EPPK-k irteera kolektiboa eskatzen du. Posible al da bide horretan?

Presoen irtenbidean jokabide indibidualaren eta kolektiboaren arteko modua aurkitu daiteke. Presoek kolektibo modura erabaki asko hartu dute jada, eta gehiago hartu beharko dute egoera berrian beren askatasuna bideratu ahal izateko.

Nola?

Esaten diguten arabera, horrek guztiak legalitatean espediente indibidualen arabera kokatzea eskatzen du. Niretzat hori ez da kontraesankorra. Ezker abertzaleak Sortu legeztatzeke egin zuen azterketa eta bere burua birkokatu zuen hain zuzen beharra

"Madrilgo deklarazioak irabazle/galtzaile filosofia errepikatzen du"

duelako legalitatean aritzeko. Alderdien Legeak, gure gustuko ez denak, exijitzen digu hainbat puntu betetzea eta guk hori egin dugu. Guk ariketa hori egin bagenuen, presoek ere ariketa hori egitea ez dago inondik ezker abertzaleak eta ETAk ere hartutako erabakiekin kontraesanean. EPPK-k testuinguru politiko horre-

tan kokatzeko antzeko erabakiak hartu beharko ditu presoen askatasuna posibilitatzeko.

Sortu-ren legalizazioak nola eragingo du ezker abertzalearen estrategian?

Sorturen legalizazioak ez du estrategia eragingo bereziki. Sortuk ezker abertzalearen ondare guztia bilduko du, betiko ezker abertzalearen militantziak osatu duen eremu politikoarena, alderdi politiko legal baten baitan antolatua. Kito. Hori izango da Sortu. Hortik aurrera, ezker abertzaleak *Zutik Euska! Herria* agirian erabaki zuen aliantzen politika garatzea beste alderdi subiranistekin batera. Sortuk aliantza horietan sakontzen eta are gogo gehiagoz aritzen lagunduko du.

Bateragune auzikoak aske geratuz gero, Arnaldo Otegi izan daiteke lehendakari hautagaia?

Izan daiteke aukera bat. Arnaldo ezker abertzalearen aktibo handia da, ezker abertzaleak dituen beste aktibo askoren artean. Bateragune auziaren aurkako helegitearen bidez Arnaldo epe laburrean kalean badago, ziur naiz, bere hautagaitza oso baloratua izango dela, lehenik eta behin ezker abertzalearen beraren baitan.

Batzuek diote askatuko dutela, Espainiako Gobernuari interesatzen zaiolako. Badira ere justu kontrakoa pentsatzen dutenak.

Hedabideetan erreparatzen baduzu denetariko iritziak daude. Batzuek diotenez, Arnaldo barruan mantenduz ezker abertzalea indartzen da, eta alderantziz, Arnaldo kaleratzen badugu eta hauteskundeetan hautagai bada, modu horretan indartuko dugu ezker abertzalearen hautagaitza. Hipotesi eta espekulazio horien guztien gainetik, ordea, salaketa hau egin behar da: Espainian sententzia judizialak batzuen interes politikoen arabera hartzen dira, ez nolako epaiketa egin den arabera, ez beharrezko bermeak izan ote diren epaiketan, eta eman zen epaia justua izan ote zen ala ez aztertuta. Hori da kezka garriena, eta eztabaida horrek ongi marrazten du zer-nolako munstroren kontra ari garen borrokatzen. ■



Udaltop IV. topaketak

Borroka feministaren ikasgaiak

Udaletako euskara zerbitzuen topaketek ondoko izenburua izan dute: *Nolakoa da gure (udalaren) hizkuntza-politika? Begiratu, mesedez, euskara sailetik kanpo. Euskara alorretik urrutiratzen hasi eta feminismora egin zuten jauzia, mugimendu horren ekarpenek euskalgintzari balio diezaioketelakoan.*

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Axier Lopez

MARI LUZ ESTEBAN basauriarra medikua eta antropologoa da; feminista ere bada eta mugimendu horretan daukan esperientziagatik gonbidatu zuten Udaltopera. Bitxia da, zeren Estebanek esan zuenez —eta kafe orduan bildutako batzuek ere bai— nekez begiratzeko dio herri mugimendu batek aldamenekoari, lanean nola ari den ikusteko.

Aurten Udaltopek euskara udaleko (edo bestelako erakundeetako) Euskara Sailetik ateratzeko ariketa egin nahi izan du. Hala, Luis Intxauspe Hernaniko alkateak udal osoan nolako hizkuntza politika erabiltzen ari diren azaldu zuen (ARGIA erreportajea egin genuen: 2295. zenbakia, 2011-10-23). Maite Alvarez Bermeoko Udaleko Euskara Zerbitzuko arduradunak olagarroaren tentakuluak udaleko beste txokoetara nola iritsi diren kontatu zuen. Entzutekoa izan zen kontu hartzailearen bideo zatia, nola deitzen zien euskara teknikariei “pelma” eta “taliban”. Prozesuak aurrera egin ahala ikuspegia zeharo aldatu zuen udaleko langileak, bigarren bideoan ikusi genuenez. Besteak beste, kontu hartzailea kezkatuta ageri da erabileraren formalean euskarak aurrera egin badu ere langileen artean gaztelania entzuten delako. Aldaketa itzela langilearena.



Mari Luz Esteban antropologoa borroka feministaren hainbat ezaugarri azaldu zituen, euskalgintzarako baliagarri izan daitezkeelakoan.



Udaltop, Udaletako euskara zerbitzuen IV. topaketak Lasarte-Orian egin ziren martxoaren 22an eta 23an.

Zer ikas dezakegu feminismotik?

Itzul gaitezen ordea Mari Luz Estebanen hitzaldia. Zubi lana egin zuen berak, mugimendu feministaren hainbat zertzelada eman zituen, euskalgintzarako baliagarri izan daitezkeen etengabe galdetuz. Ondoko elementuekin ariketa egin dezakegu:

– Emakumeak gizonarekiko lege berdintasuna lortu du; hala ere, legeak mugak ditu, erreparatu bestela Irun eta Hondarribiko alardeetan gertatutakoei.

– Jabekuntza kontzeptua. Hego Euskal Herrian, 2003an hasi ziren lehenengo jabekuntza eskolak. Helburua zen emakumeek desberdintasun egoeraz kontzientzia hartzea eta parte hartze politikoa bultzatzea. Urratutako eskubideak aldarrikatzea ondo zegoen, baina zer egiten du norbanakoak, eta zer kolektiboak, eguneroko bizitzan? Lau egiteko zituzten jabekuntza eskolek: eskubideen kontzientzia hartu, talde sentsazioa indartu, feminista solteak erakarki eta feminismoarean aurpegi anitzak elkartu.

– Biktima eta agentea. Emakumea biktimatzat hartzeak bi gauza dakartza; ekintzarako ahalmena kentzen zaio eta laguntza kanpotik helduko dela aurreikusten da. Asko ala gutxi, beti du boterea norbanakoak eta ekintzarako ahalmen hori baliatu behar da.

– Gorputzez gorputz. Bizitzaren haragitasuna begiratzea proposatzen du Estebanek. Diskurtsoari eta teoriari asko begiratu diegu eta gutxi gorputzari. Ariketa politikoa,

ariketa fisiko eta emozional bihurtu behar da. Norbanakoa beste era batera ikusteko modua da. Galdera da: zer egiten dugu gorputzekin?

“Urratutako eskubideak aldarrikatzea ondo zegoen, baina zer egiten du norbanakoak, eta zer kolektiboak, eguneroko bizitzan?”

MARI LUZ ESTEBAN

Eta zer gay mugimendutik?

Mari Luz Estebanek ordubetez feminismoaz egindako hitzaldiak 2010eko otsailera eraman gaitu, Durangon Topaguneak urte eta erdiko hausnarketa abiatu zueneko jardunaldietara. Orduko hartan, Imanol Minerrek, Errenteriako Lau Haizetara euskaldunon elkarteak kideak, azpimarratu zuen euskara elkarteentzat mugimendu feminista eta lesbiana, gay, bisexual eta transen LGBT mugimendua eredu izan

“Ingelesezkotik *empowerment* kontzeptuaren haritik, hiztunak begirada berria behar du, osatzeko, autodeterminatzeko, ahaldundutzeko edo jabetzeko”

IMANOL MINER

zitezkeela, eta borroka horien haritik osatu zuen hitzaldia. Alderatu Minerren esan hauek Estebanekin: “Hiztuna euskara elkartearen jardueraren erdigunera ekarri behar da. Ingelesezkotik *empowerment* kontzeptuaren haritik, hiztuna begirada berriz jantzi behar da, osatzeko, askatzeko, autodeterminatu, ahaldundu edo jabetzeko eta lan hau euskara elkarteek beregan hartu behar dute. Jarduera armatuaren desarma kudeatzea tokatzen omen den garai honetan, hiztun euskaldunari armatzea tokatzen zaio, baina ez teknologia militarrekin, inteligentzia emozionalarekin, Internetekin eta gisako beste teknologiekin baizik”.

Harrotasuna, norbanakoa, jabekuntza, autodeterminazioa... Artikulua hasteko esan dugu nekez begiratzen diola herri mugimendu batek besteari zertan ari den jakiteko. Baina, badirudi, begiradak ari direla gurutzatzen. Beste adibide bat etorri zaigu akordura. ARGIAk duela gutxi (2313. zenbakia, 2012-03-04) Euskal Herrian Euskaraz mugimenduko Unai Larreategi elkarrizketatu zuen. EHE bide berriak urratzen ari da, eta Larreategi azaldu zuen nola hizkuntza eskubideen urraketa salatu eta eskubideok aldarrikatzeaz harago, eguneroko bizitzan euskaldunak egin dezakeena aztarrikatzeko garaia den.

Transbertsalitatea udaleko sailen artean, baita herri mugimenduen artean ere. ■



Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure artean!
euskaraz



BFA
DFB

Deiadarra Baionan, Perpinyan...



Okzitaniako Tolosan 30.000 lagun bildu ziren okzitaniarren aldeko manifestazioan.

MARTXOAREN 31N, Baionan, inoizko *Deiadar* manifestaziorik jendetsuena egin zen. Karriketan 7.000 euskaltzale bildu ziren euskaraz bizitzeko nahia agerian uzteko eta hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko. Euskal Konfederazioak eta Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluak egin zuten manifestaziorako deialdia. Baionakoa ez zen izan manifestazio bakarra. Frantziako Estatuko hainbat hizkuntza komunitatetako milaka lagun bildu ziren egun berean. Ipar Katalunian, Perpinyan, 6.000 lagun atera

ziren kalera; Britainako Kemperren 12.000; Okzitaniako Tolosan 30.000 eta Alsaziako Estrasburgon 3.000 lagun.

%12 gutxiago EEPrentzat

EUSKO JAURLARITZAK eta Euskararen Erakunde Publikoak iaz sinatu zuten sei urterako lankidetzaren hitzarmena. Aurten 457.000 euroko ekarpena egingo du Jaurlaritzak, iaz baino %12 gutxiago.

Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak adierazi duenez, krisi ekonomikoaren ondorioa da apaltzea. 370.000 euro proiektuen deialdia egiteko baliatuko dituzte eta 70.000 euro irakaskuntza elebidunerako.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Greba inoiz ez da porrota

Joan den astean Espainiako Gobernuan inposatutako lan erreformaren kontrako greba orokorra izan zen Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan. Langileen, sindikatuen eta gizartearen eskubideak murrizten ditu erreformak, enplegua are gehiago eskasten du, kaleratzeak merkatzen ditu eta emakumeak are okerrago tratatzen ditu. Erreforma, patronalaren, bankuen eta "merkatuen" zerbitzura egina dago, eta ongizate estatua desegitea du helburu, langileek euren borrokaz azken hamarkadetan lortutako ongizatea.

Testuinguru horretan, langileek eta herritarrek euren buruari galdetzen diote ea grebek, eta zehazki greba orokorrek, zerbaitetarako balio ote duten. Izan ere, erreforma inposatu duen Gobernuak adierazi du, greba orokorra eginagatik ere, ez duela bere politika aldatuko. Gainera, sistema kapitalista bere bozeramaile mediatikoekin saiateri ari da herritarrek euren aldarrikapenak eta mobilizazioak lagatzea: "Ez baitute ezertarako balio izan, egun bateko soldata galtzeko izan ezik".

Baina grebak eta herritarren mobilizazioak inoiz ez dira porrota, helburuak berehalakoan lortzen ez badira ere. Arrazoi nahikoa egonik greba eta mobilizaziorako, hura egiteko deialdia eta parte hartzea –Euskal Herrian oso inportantea–, guztiok bilatzen dugun gizarte berri baten funtsezko baloreen erakusgarri dira: justizia sentimendua, elkartasuna, gizartearen parte hartze aktiboa, eta batez ere, esplotazio politiko, ekonomiko eta sozialaren aurrean duintasuna erakustea. Historian, izan dira gobernuak bota dituzten greba orokorrak. Eta izan dira euren helburuak lortu dituzten greba orokorrak. Oraingo honetan, agian ez dira helburuak epe motzean lortuko, baina milaka lagunek erreformari aurre egin izana ez da inoiz porrota izango. Duintasunaren garaipena izan da. Eta aurre egiten jarraitu beharko dugu. Irnatasunez!

Juan Mari Arregi



BAHEA

Mikel Irizar Topaguneko lehendakari berriak Berrian esanak: "[Euskarara elkarteez galdetuta] Herri mugimendua ahuldu egin da. Lozorroan egon gara. Erakundeen esku utzi dugu hizkuntza politika egiteko eta normalizazioa sustatzeko ekimena. Herri ekimen hori berreskuratu behar da; gainontzean, lortu genituen gauzetako batzuk galtzeko arriskua dago. Hor lan handia dugu egiteko. Topagunak azken urteetan egindako hausnarketa bide horretatik doa. Euskara elkarrekin akitu izan behar dute berriro ere euskararen zabaltzean eta normalizazioan. Gizarteak berriro mobilizatu behar du, eta norbanako gisa euskaldun izateko konpromiso hori indartu, handitu. Emozioetan eta jarreretan eragin behar dugu. Beharrezkoa da baita ere euskararen inguruan diskurtso modernoak eraikitzea; ez bakarrik historiaren eta eskubideen ikuspegitik. Ekologiaren eta berdintasunaren alorra ere landu behar da. Asko begiratu behar diogu feminismoari, adibidez. Jabekuntzatik hainbat egoera iraultzea lortu dute".


Espainiako justiziaren indarkeria

ESPAINIAKO JUSTIZIAK badu arazo handi bat Euskal Herrian, gizarte zati handi batek ez duela berau onartzen, bere erabakietatik ondo datozkionak baliatzen ditu eta besteak hala-beharrez bete eta listo. Eta, beraz, ez dira onartzen “justiziak erabakitzen duena errespetatu behar da” eta gisakoak. Legitimitaterik ez duena betetzen da eta listo, atzetik Estatuaren indarraren mehatxua edo praxia dagoelako.

Bale, eta dena ez da hain borobila ere, jakitun naiz, lege eta arau batzuek badutelako herritarren legitimitate maila bat, Gasteiz eta Iruñeko Legebiltzarrekoek, diputazioetakoek, udaletakoek... nahiz eta dena, nagusiki, Espainiaren lege markoaren barruan kokatu. Azken finean, Parot doktrinari buruz Auzitegi Konstituzionalak hartutako erabakiaren tankerakoek elikatzen dute batez ere Espainiako justiziarekiko ikusmolde arrotz hori, salbuespenekoak diren lege eta ebazpen horiek –gero Espainia osora orokortzeko balio dutenak–.

Ahalezko bake prozesu baten testuinguruan, Parot doktrinaz hala ebazten duenak, argi erakusten du errealitate printzipiora hurbiltzeko duen nahia. Batzuetan bederen, zeren eta 2005eko bueltan, ETAko preso ezagun asko epe laburrean legez kaleratu behar zituztenean, horrek zor zezakeen alarma medio, zerbait egin behar zen errealitate printzipiora egokitzeko.

Konstituzionalak esan du, funtsean, Parot doktrina egoki aplikatu zaiela dozenaka presori, gehienak ETAkoak. Baina Jose Ignacio Gaztañaga, Juan Mari Igarataundi eta Jose Mari Perezi ez, hauek finkatuak zituzten bere irteera egu-



nak –epaimahaiaren irakurketaren arabera–, eta doktrina juridiko honekin beren irteeraren atzerazintasuna urratu da. Gaztañagak, adibidez, 6 urte gehiago egin ditu espetxean: nork itzuliko dizkio urteok? Zein kalte-ordain emango zaio? Zein biktima batzordetan aztertuko da eta nola erreparatuko zaio kaltea?

Baina ez da euskal gizartearen sektore zabaletan bakarrik arbuaitu Konstituzionalaren epai hau. José Yoldi *El País*-eko aditu judicialaren apirilaren 2ko kritika irakurtzen duenak Espainiako sektore aurrerakoiek epaia nola hartu duten irakurri ahal izango du. Yoldik, funtsean, Konstituzionalak bere buruari iruzur egiten diola dio, epaia askoz lehenago eman behar zuela, atzerazintasuna hausten duela, segurtasun juridikoa, berdintasunarena, bergizarteratze printzipioa...

“Lotsagarria” eta “kontaezina” dira, besteak beste, Yoldik erabiltzen dituen adjektiboetakoak.

Bere esanetan, Estrasburgoko Auzitegiak uda aurretik eman- go ei du – Ines del Ríoren helegitea medio– Parot doktrinari buruzko iritzia. Ordurako, Sorturi buruzko helegitea erabakiko ei du Konstituzionalak. Sikiera, izango al du bultzadatxo bat Eusko Legebiltzarrean sortu berri den bakeari eta elkarbizitzari buruzko ponentzia entzutsuak?

EUSKO LEGEBILTZARREKO ponentziak beharko baitu bultzada berezirik bere helburuen alde egiteko. Funtsean, Aralarreko hiruko parlamentari kritikoek eta jeltzaleen azalpenak entzunda, zera ondoriozta liteke: hau ez da foroa, baina foro garrantzitsua izan liteke. Foroan dauden esku izango da hori frogatzea, baina forokide askoren iritzia entzunda, honen bideragarritasuna barrukoek ekimenean baino balizko gonbidatuen parte-hartzean dago. Eta egiazko foroa ez bada, foro hori berandu baino lehen osatu beharko da, nahiz eta ez dirudien hori samurra izango denik hurrengo Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak baino lehen. Edo Sorturen legeztatzeak erraztuko luke halakorik?

Kasu batean edo bestean, interesgarria izango da nola jokatu duen ezker abertzaleak, hasierako arbuioa argia izanik ere, foroaren garapenean izango baitu ahotsik, EA eta Aralarren eskutik zeharka eta gonbidatu gisa zuzenean ere bai. Oinarriak argi utziz, azken urteotako jarrera pragmatikoak emaitza onak eman dizkio eta foro honetan ere, akaso, bila dezake bake prozesuaren eraikuntzan baliagarria izan daitekeen zirrikiturik.



Peter Goodwinek bidea ireki zion heriotza duinari

AEBetako Oregon estatua da gaixo terminalei suizidioan laguntzea legez zigorgabea den leku urrietako bat. Heriotza duinaren aldeko militanteentzat aitzina-pauso handia den hori aurrera ateratzen protagonismo berezia izan zuen Peter Goodwin medikuak. Sei hilabeteko agonia zetorkiola eta, martxoaren 11n berak erabili zuen legearen baimena.

ERITASUN DEGENERATIBO LARRIA zeukan Peter Goodwin doktoreak, zortzi urte zeramatzan harekin borrokan. Oregoneko legeak agintzen duen moduan, familiako sendagileari eskatu zion abiarazteko tramiteak. Honek zertifikatu zuen 83ko aitona 6 hilabete baino luzeagoko bizirik ez zuela aurrean, buruz argi zegoela eta espreski adierazten zuela heriotzak bera harrapatu baino lehen nahi zuela bere eskutik hartu botika koktel hilgarria, etxean eta seme-alaben artean hiltzeko. Martxoaren 11an egin zuen.

Mundu osoko prentsan eduki du oihartzunen bat Goodwinen heriotzak. Ez alferrik izan zen bera Oregonek 1994an *Death With Dignity Act* (Heriotza Duinaren Legea) delakoaren bultzagile nagusietakoa. Morbo gogorik gabe baina zorrotz, Goodwin zaharrak familiaz gain ingurukoei jakinarazi zien erabakia eta zenbait elkarrizketa eman ere bai komunikabideei, tartean *Time* aldizkariak egunokaz plazaratu behar omen duena. Probetxugarria nahi zuen bere azken ekintza.

1928an Londresen jaio zen Peter Arnold Goodwin, jatorrizko Godberg abizena aldatu zuen familia judu baten baitan. Aita saltzaile soila zuen, eta haur denboran familia osoa orduan britainiarrena zen

Hego Afrikara lekutu zen, etorki-zun oparagoaren bila.

Mediku ikasketak burututa, praktikak egitera beltzen artera joan zen, gero mitikoa egingo zen Queens-towner. *Oregon Live* hedabideak egin dion biografian irakur daiteke txabolategietan lan egitea egokitu zitzaiola, miseriaren erdian, eta gaixoak artatu ahal izateko Xhosa hizkuntza ikasi zuela.

Queenstownen 1956an ezagutu zuen gero emazte izango zuena, Erica, estilo handiko emakumea eta aldi berean indar handikoa, biografoaren esanetan. Beltzen kontrako zampaketa basatiaren urteak ziren.

1960an Sharpsvilleko masakrea gertatu zenean, afrikaner jendearen poliziak manifestazioan protestaka ari ziren dozenaka herritar beltz hilez, Erica *Queenstown Progressive Party* alderdian sartu zen. Laster azaldu zen emakumearen irudia egunkarietako argazkien artean. Goodwindarrek zeukaten neska-meak ohartarazi zien auzoko afrikaner jendea oso haserre zeukatela emaztearen militantziagatik. Medikuek erabakia fite hartu zuen: “Etxera joan eta ‘alde egin behar dugu’ esan nuen”.

AEBetan Oregoneko Portland hirian kokatu zen Goodwin doktorea. Familiako mediku lanak egin zuen oso ezagun estatuan.

The Oregonian egunkarian Michael Lloydek argitaratutako irudian, Peter Goodwin doktorea. Medikuek laguntzaz bere buruaz beste egin aurretik, komunikabide batzuei mintzatu zitzaion: “Ez naiz jendearekin bazkaltzeko gauza. Osasuna okerragora doakit. Hiru medikuk azaldu didate sei hilabete baino gehiago ez dudala iraungo bizirik. Bizia eteteko beharrezko botikentzako errezeta eman dit medikuak eta dena prest daukat”. Bere aurretik 597 herritarrek erabili dute Oregonen heriotzaren zain dauden gaixoei legeak ematen dien aukera hori. *The Oregonian*ek editorialean esan du: “Urteotan ikusi da Goodwinek eta bere lagunek arrazoi zutela. Esan zuten hiltzorian daudenen zainketa hobetuko zuela, eta hala gertatu da. Aurkakoek esan zuten suizidio uholdea izango zela Oregonen, heriotzaren kultura. Eta ez da hala gertatu”.


Medikuntzako fakultatean irakasle ere aritu zen. 1990eko hamarkada hasieran heriotza duinaren aldeko kanpaina egiten zuen *Compassion and Choices* (Errukia eta Aukerak) elkarteari aholkuz eta militantziaz laguntzen hasi zen. Famili plangintza burutsuaren aldeko *Planned Parenthood* taldean ere aritu dira senar-emazteak. Erica 2008an hil zen.

Jainko errukiorra

Duela hogeitaz inguru, Goodwinek berak kontatu du, gaixo batek eskatu zion hiltzen lagun ziezaiola. Tumore oso gaiztoa zeukan bizkarrezurrean, oinaze handiak zeuzkan eta laster hil behar zuen. Goodwinek ukatu egin zion. Gero gizon haren emazteak eskatu zion: “Errezeta ematen badidazu, nik lagunduko diot hiltzen”. Goodwinek ezetz berriro: legearen kontra-koa zen.

Beranduago, gaixo terminalei suizidatzen laguntzea zigorgabetzea eztabaidatzen zuten parlamentariak doktoreak aitortuko zien gizon hari lagundu ezinak sentiarazi zuela triste eta koldar: “Ezin gara errukiz jokatu jendeekiko, haiei aukerak mugatzen badizkiegu”.

Legeak bide malkartsua iragan behar izan du Oregonen. *Measure 16* izenez ezagutzen duten Heriotza



Urte guztiotan mediku katoliko bat eduki dute arerio, William L. Toffler. Bi doktoreen arteko borroka dialektiko zorrotza nagusiki Oregoneko medikuen elkargoan ikusi da. Kronikek bildu dituzte bien artean etikaz eta medikuntzaz izandako eztabaida luze, bero eta sakonak.

Behin, bilkura publiko baten bukaeran, elkar ondo ezagutzen zuten bi gizonen arteko giroa mikaztuta, Tofflerrek bota zion: “Zure alde egingo dut otoitz, Peter”. Goodwinek galdeturik ea hori zertara zetorren, Tofflerrek: “Ondo da, nahi ez baduzu zure alde otoitz ez egitea, ez dut eginen”. Goodwinen errematea: “Uste dut, *Bill*, nire Jainkoa zurearen berdina ez dela. Nire Jainkoak barkatu egiten du, ulertu egiten du. Nire Jainkoa ez da denboran izozturik gelditu”.

Bestetan bezala, AEBetan ere denetarako behar baita sosa, legearen aldeko kanpaina finantzatzen aberats batek lagundu zion. Elven O. Sinnardek emaztea galdu berria zuen: bihotzeko eritasun larri batek joa, ezin bizirik, bere burua hil zuen pilula sorta bat hartu eta burua plastikozko zorroan sartuta. Heriotza duinagoa merezi zuen.

Goodwinek medikuek: “Medikuek gaixoeak artatzen ikasi dute, baina sarritan artatzen segitzen dute, segi eta segi. Hainbeste arma dauzkatenaz gaur horretarako, kosta egiten zaie tratamenduak etetea”. Goodwinek lau zeuzkan bizitzarako arau oinarritzotzat: “Bata leialtasuna, bia errukia, hirugarren ohorea eta laugarrena gozatzea”. ■



Duinaren Legea 1994an lortu zuten bertako parlamentuak onartzea, baina ez zen indarrean jarri 1997ra arte. Gero, gainera, AEBetako Auzitegi Gorenak ebatzi behar izan zuen haren legezkotasuna. 2011ko Sundance festibalean garaile atera zen *How to Die in Oregon* (Oregonen nola hil) dokumentalak kontatzen ditu eztabaidak.

Heriotza duinaren legea ez da, noski, Goodwinen asmakizuna. AEBetan 1980ko hamarkadatik funtzionatu du Hemlock (Astape-rrexila ingelesez, belar horrekin hil zuen bere burua Sokrates filosofo greziarrak) elkarteak. Mundu osoan hain ezaguna den *Final Exit* (Azken irtenbidea) liburuaren egile Derek Humphryk sortu zuen.

Goodwin Oregonen gai honen inguruan *Oregon Right to Die* izenarekin mobilizatutako taldera iritsi zenean, 1993an, mediku gehienak gaixo terminalei suizidatzen laguntzea legez baimentzearen kontra zeuden. Taldearentzako sekulako *fitxajea* izan zen Goodwin erakartzea. Honek, berriz, beti aitortu du plazerez onartu zuela bere izena eta esperientzia erabil zitzen.

Ordura arte militanteok aipatutako eskakizunak samurtuta (Oregongo legeak ez ditu bere baitan hartzen heriotz arriskua gertu ez daukaten gaixo kroniko larriak, motzago geratzen da Holanda eta Suitzako legeak baino) eztabaida gizarte osora zabaltzea lortu zuten.





**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Mikel Irizar

Tribuaren mezulariak

ANDOAIN, MARTXOAK 13. Martin Ugalde parkean, 50 euskal hedabidek agerraldia egin zuten, sektorearen diagnostiko konpartitua plazaratzeko. Innobasque-rekin landu dute Gipuzkoa Berritzen ekimenaren baitan, eta aurrean dituzten erronkei elkartuta egin nahi diete aurre, eta erakundeekin elkarlanean.

ESKORIATZA, MARTXOAK 17. HUHEZI fakultatean, 20 toki hedabidek TOKI-KOM enpresa eratu zuten, esparru komunak eraiki eta kudeatzeko, solaskidetzak bakarraz jarduteko eta integrazioa lantzeko. Talde hau Andoaingoaren zati da: hura sektorea, hau azpisektorea.

Adi! Tribuaren mezulariak etorkizunera bidean abiatu dira.

KOMUNITATEAK ETA KOMUNIKAZIOA. Mundu zaharrean geografiak eragiten zituen komunitateak, zonalde berean bizi zirenak bihurtzen ziren komunitate. Baliabideak partekatzetik hasi eta hizkuntza, kultura, nortasuna garatuz sortu dira munduko komunitate berezkoak.

Denboran aurrera, bidaiek jarri zituzten komunitate berezkoak elkarrekin harremanetan eta bide batzuk komunitate izatera iritsi ziren (Donejakue, Zetarena). Kultura idatzia ere izan da komunitategile handia.

XXI. mendean komunikazioa da komunitategile nagusia: koadrilarekin, ahozkoa; sendiarekin, telefonoa, e-maila edo Internet; barnekomunikazioa enpresa eta erakundeetan, sare sozialak lagun taldean edo kidesun ezberdinen inguruan... Antzina ibai-bihurguneetan kolono multzoak finkatzen ziren bezala, gaur komunitateak sortzen dira komunikazio-kanaletan, interes komun baten errebuelta.

Hain da hau horrela, komunikazio-kanal propiorik eraiki ez duen komunitate berezkoak kolokan duela biziraupena bera.

MAPATIK ATERA. Une honetan bidegurutzean da euskararen komunitatea ere, gure tribua. Ez da bidean galdu, baina ez du



DANI BLANCO

etorkizuna ziur. Aurreko mapatik atera egin da, eta berria behar du aurrera egiteko. Lurralde ezezagunean eskarmentuak balio dio, baina lehengo mapak ez.

Besteak beste, mundu berrian ezinbestekoa du informazioa landuko duen komunikazio-egitura propioa eraikitzea. Baditu osagai batzuk: hizkuntza garatua, herri ekimenez sortutako hedabideak, erakunde ahalmandunak, teknologiaren ezagutza, etorkizunaz kezka... Orain behar ditu beste bi: norabide argia eta lankidetzak.

NORABIDEA. Iraultza digitalak hankaz gora jarri zituen komunikazio eredu tradizionalak eta krisi ekonomikoak errematatu egin du aberia. Telebista publiko asko kolokan dago, egunkari handiek ez dakite nola eutsi negozioaren gainbeherari, publizitateak nekez egiten du paperetik Internetara...

Gure hedabideek –gehienek– ez dute gerribueltan gantz handirik, mehe daude estualdian irauteko. Eta kezka argia dute etorkizunari buruz. Horregatik jarri dira aurrera begira, hausnarrean, norabide argia marraztu asmoz. Erakundeengandik ere laster batean espero dira ekarpenak. Guztia uztartzea izango da hurrengo lana, ereduaren hezurdura partekatzea, norabidea adostea.


LANKIDETZA. Euskal hedabideak –oro har– ez dira negozio. Eta horrek badu alde on bat: hedabideon atzean ez dago Murdoch edo antzekorik, herri ekimena baizik. Gure hedabideek funtzio sozial bat dute helburu nagusi: euskararen komunitatea sendotzea. Eta hor dute interes komuna beren artean eta herri erakundeekin.

Gauzak horrela, une ezin egokiagoa da interes komunari forma emateko, eredu konpartitzeko, lankidetzak finkatzeko. Oraintxe da ordua euskal hedabideen gaia trifulka politikotik ateratzeko eta jardura kontzertatuen lerroan sartzeko. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Besaro Landa Hotela

Bi gau
bi lagunentzat

Iratiko oihanaren sarreran
Irigoien, 5
Itzaltzu NAFARROA

www.besaro.es

1



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

2



Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museooteiza.org

3



Emakume bat


Annie Ernaux

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

4



Ertzeko zatiak

Jon Sarasua

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2316. Argia)

IBERNALO LANDETxea

- Iñaki Azkune Mendia (Donostia)

EKAINBERRI

- Edurne Lazkanoiturburu Manterola (Hondarribia)
- Elgoibarko aek Euskaltgia (Elgoibar)
- Eva Ruiz de Galarreta Crespo (Noain, Elortzibar)

OKATXU komikia

- Xanti Saizar Arostegi (Tolosa)
- Mari Eli Ituarte Zarragoikotxea (Markina-Xemein)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Arturo Kampion Kultur Elkartea (Iruñea)
- Santurtziko Udal Euskaltgia (Santurtzi)
- Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)

TOPEKA Beti bide zailenetik CDa

- Amara Berri Aek Euskaltgia (Donostia)
- Anoetako Udal Liburutegia (Anoeta)
- Javier Iraeta Narbaiza (Durango)
- Etxalarko Liburutegia (Etxalar)
- Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





*sakelako telefonoetan
nahi duzun lekuan*



**Mugikorretarako gune
egokituari funtzio berriak
gehitu dizkiogu:**

BERRIAK: Aktualitateak eman duena egunez egun jarraitzeko aukera duzu.
ASTEKARIA + ARTXIBOA: Azken hamarkadan argitaratu diren astekari guztiak osorik irakurgai.

Berrikuntzak:

MULTIMEDIA: Beranduegi Telebistako saio guztiak, bideoak, diaporamak, dokumentalak, film laburrak, hitzaldiak... Guztira 600 lanetik gora.

SARE SOZIALETARA loturak eta edozein albiste, artikulua edo multimedia elementutan zure iruzkinak utzi eta besteenak irakurtzeko aukera.

DISEINU BERRITUA erabilterrezagoa izan dadin gunea eta irakurgarriagoa izan daitezen testuak.

PLATAFORMA gehiagotan kontsultagarri: iPhone, Android, Symbian, WindowsPhone eta Samsung Bada.

*Proba ezazu mugikorretarako egokitutako webgunea
m.argia.com*

